

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko otsailaren 12a

18. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-23/CCO-00024. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2022ko ekitaldiko urteko kontuei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/CCO-00024. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2022ko ekitaldiko urteko kontuei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin

2023ko azaroaren 13an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2022ko ekitaldiko urteko kontuei buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko


Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Adieraztea Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2022ko ekitaldiko urteko kontuei buruzko fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



AURKIBIDEA*Orrialdea*

I. SARRERA	5
II. HELBURUA ETA NORAINOKOA	5
III. IRITZIA.....	6
III.1 2022ko urteko kontuei buruzko finantza-auditoretzako iritzia.....	6
III.2 Zuzenbidearen araberakotasunari buruzko fiskalizazioko iritzia	6
IV. IRITZIAREN OINARRIA	6
V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK	6
VI. ENFASI-PARAGRAFOA.....	7
VII. BESTE GAI BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA	7
VIII. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN ERANTZUKIZUNA.....	8
IX. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	8
X. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA	9
1. GEHIGARRIA. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN 2022KO EKITALDIKO URTEKO KONTUEN LABURPENA	10
2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA	14
3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA.....	17
4. GEHIGARRIA. ERREGULARTASUNARI BURUZKO FISKALIZAZIOKO OHARRAK ETA BESTE AURKIKUNTZA BATZUK	18
4.1. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2022ko aurrekontua.....	18
4.2. NUPen egoera ekonomiko-finantzarioa 2022ko abenduaren 31n.....	20
4.3 Langileria-gastuak	21
4.4. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	26
4.5 Transferentzia arruntak	29
4.6. Inbertsioak.....	30
4.7 Ikerketa-kontratuen eta -proiektuen kudeaketa	31
4.8 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk.....	33
4.9 Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak	35
4.10. Epe laburreko zordunak eta hartzekodunak.....	36
4.11 Unibertsitate-Gizarte Fundazioa.....	36
I. ERANSKINA. ADIERAZLE EZ FINANTZARIOEN BILAKAERA	38
II. ERANSKINA. ABENDUAREN 31KO LANGILE EFEKTIBOEN BILAKAERA.....	39
III. ERANSKINA. UNIBERTSITATEA-GIZARTEA FUNDAZIOAREN JARDUEREI BURUZKO ADIERAZLEAK	40

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2023rako bere jarduketa-programari jarraituz, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (NUP, aurrerantzean) 2022ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu. Horrekin batera, fiskalizatu du ea haren jarduerak legeria betetzen duen.

Landa-lana 2023ko apiriletik irailera bitartean egin zuen auditoretzako bost teknikarik, sistema informatikoetako erdi mailako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko eta administratiboen laguntzarekin.

Jarduketa honen emaitzak arduradunei azaldu zitzaizkien, kasua bada egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkez zituzten, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Ezarritako epea igarota, ez da alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak ematen dizkiegu NUPeko eta Unibertsitatea-Gizartea Fundazioko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Kanpo kontroleko organoen auditoretzari buruzko araudiaren azken aldaketan ondorioz, txosten honek eta 2017ko ekitaldiari buruz eman gienen egitura desberdina dute zenbait alderditan.

Txosteneko diru kopuruak biribildu egin dira, zentimorik ez agertzeko. Datuek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez datu biribilduen batura. Ehunekoak ere balio zehatzen gainean kalkulatu daude, eta ez balio biribilduen gainean.

II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Gure lanaren xedea izan da gai hauei buruz gure iritzia ematea:

- Ea NUPen 2022ko ekitaldiko urteko kontuak beren alderdi esanguratsu guztietan irudi fidela ematen duten 2022ko abenduaren 31ko ondareari, finantza-egoerari, aurrekontu-likidazioari eta emaitza ekonomikoari buruz, aplikatzekoa den arau-esparruari jarraikiz eta, bereziki, bertan jasota dauden kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideei jarraikiz.

- Ea NUPek eta haren menpeko entitateak 2022ko ekitaldian egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta kontu orokorretan jasotako informazioa egokitzen ote zaizkien, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatu beharreko arauak.

Gure lanaren norainokoak barne hartzen ditu 2022ko ekitaldiko kontu orokorrak eta 4. gehigarrian adierazitako laginekin zerikusia duten eragiketak.

Lanaren denbora-norainokoa 2022ko ekitaldiari dagokio; baina, kasuan-kasuan, beste ekitaldi batzuei buruz beharrezkoak izan diren egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Gure azterketaren norainokoa zehazteko, honako hau hartu dugu kontuan:

- NUPeko Kontu-hartzailletza eta Auditoretza Zerbitzuaren txostenak, antolakunde horren gastu- eta dirusarrera-arlo desberdinei buruz egindakoak.

- Unibertsitatea-Gizartea Fundazioaren 2022ko urteko kontuei buruz enpresa pribatu batek egindako auditoretza-txostena.

III. IRITZIA

Nafarroako Kontuen Ganberak, bera arautzen duen 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, NUPen urteko kontuak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatuta daude kontu horiek: 2022ko abenduaren 31ko balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoaren kontua, 2022ko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazkia.

Halaber, aipatu araudiari jarraikiz, 2022ko ekitaldiari buruzko legeria-betetzearen fiskalizazioa egin du NUPen eta horren fundazio publikoaren gainean.

III.1 2022KO URTEKO KONTUEI BURUZKO FINANTZA-AUDITORETZAKO IRITZIA

Gure iritiz, urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten dute, NUPen ondarearena, 2022ko abenduaren 31ko finantza-egoerarena eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoena, beterik aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparrua (zeina oroitidazkiko "antolaketa" apartatuan identifikatuta baitago) eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideak.

III.2 ZUZENBIDEAREN ARABERAKOTASUNARI BURUZKO FISKALIZAZIOKO IRITZIA

Gure iritiz, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, NUPen eta haren fundazio publikoaren 2022ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotzen diren jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi muntadun guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

IV. IRITZIAREN OINARRIA

Gure fiskalizazioa egin dugu kanpo kontroleko erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioei jarraikiz eta, zehazki, finantza-arloko eta zuzenbidearen arabera kototasunari buruzko fiskalizazioen gaineko ISSAI-ES 200 eta 400 arauetan ezarritakoari jarraikiz. Halaber bete ditugu kanpo kontroleko organoen fiskalizazio-gida praktikoak. Arau horien indarrez ditugun erantzukizunak aurrerago deskribatzen dira, "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean, gure txostenean egiten den kontu orokorreari eta zuzenbidearen arabera kototasunari buruzko fiskalizazioari dagokionez.

Fiskalizatutako entitatearekiko independenteak gara, kontu orokorreari buruzko gure fiskalizazioan aplikatu behar diren etika-alorreko eta independentziaren defentsaren alorreko baldintzak betez, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak eskatzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen dio finantzei eta zuzenbidearen arabera kototasunari buruzko gure iritziari.

V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK

Auditoretzako gai giltzarriak dira gure iritzi profesionalaren arabera esanahi handiena izan duten horiek, jadaneko epealdiko urteko kontuei buruz egin dugun fiskalizazioan. Gai horiek jorratuak izan dira urteko kontuen multzo osoari buruz egin dugun auditoretzaren eta ondorioztatu dugun iritziaren testuinguruan, eta ez dugu horiei buruzko iritzi bereizirik adierazten.

Erabaki dugu gure fiskalizazioan ez dagoela jakinarazi beharreko gai giltzarririk.

VI. ENFASI-PARAGRAFOA

Ohartarazten dugu bilakaera positiboa izan dutela NUPen kontuen oroitidazkiko adierazle ekonomiko eta aurrekontukoei buruzko epigrafean agertzen diren egoera ekonomiko-finantzarioaren adierazleek. Jarraian erakusten dugu azken lau urtean horietako batzuek izandako bilakaera¹:

	(milakotan)					
	2019	2020	2021	2022	Aldea (%) 2022/2019	Aldea 2022/2021 (%)
Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa	1.214	1.811	7.457	10.643	777	43
Aurrezki gordina	6.261	7.152	10.400	11.250	80	8
Aurrezki garbia	6.203	7.116	10.378	11.230	81	8
Aurrekontu-emaizta doitua	51	1.207	2.434	2.121	4.059	-13
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.727	3.695	5.574	3.136	82	-44

2022an, adierazle horiek bilakaera positiboa izan dute 2019arekiko, nahiz eta, 2021ekiko, negatiboa izan den, aurrekontu-emaizta doituaren eta gerakinaren kasuan.

VII. BESTE GAI BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA

Europar Batasunak erabaki zuen 750.000 milioi euro bideratzea estatu kideen multzoari, Next Generation funtsen bitartez, COVID-19aren pandemiaren eragina samurtzeko eta ekonomiaren suspertzeari bultzada emateko.

2021-2022 epean, NUPek guztira 10.55 milioi jaso zituen funts horietatik, honela xehakaturik:

	2021	2022	Guztira
Estatuko Administrazio Orokorraren transferentzia arruntak	2.423.568	2.500.780	4.924.348
Estatuko erakunde autonomoen transferentzia arruntak	-	1.936.409	1.936.409
Autonomia erkidegoen transferentzia arruntak	-	595.901	595.901
Autonomia erkidegoen kapital transferentziak	-	3.098.000	3.098.000
Guztira	2.423.568	8.131.089	10.554.657

Jasotako funtsetatik, 2022ko abenduaren 31ra bitartean NUPek 1,98 milioi erabili ditu, honela xehakatuta:

	2021	2022	Guztira
Gastu arruntak	-	1.353.364	1.353.364
Kapitaleko gastuak	1.798	631.549	633.347
Guztira	1.798	1.984.913	1.984.913

Gasturik gehienak bideratu dira zenbait ikerketa-jardueratara, zeinetan NUPekoak diren langileek parte hartu baitute. Jarduera horietarako, beharrezkoak izan diren inbertsioak egin dira, kasua izan denean.

Funtsen denbora-estaldura 2026an; amaitzekoa da. 2021 eta 2022an diru-sarrerera handiagoak aitortu dira garapen-fasean dauden proiektuen gastuak baino. Behar bezala ematen da finantzatze-desbiderapen horien berri, bai aurrekontu-emaiztan bai diruzaintzako gerakinean.

¹ 2019, 2020 eta 2021eko ekitaldi ez-auditatuak.

VIII. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN ERANTZUKIZUNA

NUPeko Kudeatzailtzak, errektorearen zuzendaritzapean eta NUPeko estatutuen 43. artikuluen arabera, bere erantzukizuna du urteko kontuak prestatzea. Gobernu Kontseiluak proposatuta, Gizarte Kontseiluak onetsiko ditu kontu horiek, halako moldez non irudi leiala emanen baitute NUPen ondareaz, finantza-egoeraz, emaitzez eta aurrekontu-exekuzioaz, aplikatzekoa den informazio finantzarioko araudiari jarraikiz. Erantzukizun du, halaber, beharrezkotzat jotzen duen kontrola egitea, halakoa zeinak modua emanen baitu urteko kontuak iruzur edo okerraren ondoriozko akats materialik gabe prestatu eta aurkezteko.

Gizarte Kontseiluak onetsi zituen NUPen 2022ko kontuak, 2023ko ekainaren 29an.

Urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, Kudeatzailtzak bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontroleko sistemak ezarri beharko ditu.

IX. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure helburuak dira ziurtasun egoki bat lortzea, urteko kontuek iruzur edo errorearen ondoriozko akats materialik oro har ez edukitzeaz, eta kontu horietan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa araudiarekin bat etortzeaz, erregulartasunari buruzko fiskalizazio-txosten bat jaulki ahal izateko, gure iritzia jasotzen duena.

Ziurtasun egoki hori ziurtasun maila handia da, baina ez du bermatzen kanpo kontroleko organoei buruzko araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti atzemanen duenik akats material bat edo urraketa muntadun bat, halakorik dagoenean. Akatsak iruzurraren edo errorearen ondorio izan daitezke, edo zuzenbidea urratzearen ondorio, eta akats materialtzat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta, baldin eta zentzuz aurreikusi ahal bada txostenen erabiltzaile diren pertsonen erabaki ekonomikoetan eragina izanzen dutela.

Fiskalizazioaren atal gisa, eta kanpo-kontroleko organoei buruzko araudiarekin bat etorritik, gure irizpide profesionala aplikatzen dugu eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan zehar. Gainera:

- Identifikatu eta baloratu egiten ditugu iruzur edo oker baten ondoriozko akats materiala egoteko eta zuzenbide-urraketa gertatzeko arriskuak, arrisku horiei erantzuteko auditoretza-prozedurak taxutzen eta aplikatzen ditugu, eta auditoretzako behar adinako eta behar bezalako ebidentzia lortzen dugu gure iritzia oinarri emateko. Iruzurraren ondoriozko akats material edo urraketa bat ez atzemateko arriskua handiagoa da errorearen ondoriozko akats material baten kasuan baino; izan ere, iruzurra dagoenean, tartean izan daitezke kolusioa, faltsutzea, nahitako omisioak, propio giniko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.

- Barne-kontrolari buruz ezagutza muntaduna lortzen dugu fiskalizaziorako, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatze aldera; ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi bat emate aldera.

- Ebaluatzen dugu ea aplikatu diren kontabilitate-politikak moduzkoak ote diren, kontabilitate-estimazioak egokiak diren, bai eta egoki den kudeaketa-organismoak emandako informazioa ere.

- Urteko kontuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, azaleratutako informazioa barne, eta ea kontu horiek irudi leiala adierazteko moduan azaltzen ote dituzten transakzioak eta horien azpiko egitateak.

Entitateko gobernu organoarekin harremanetan aritzen gara gai hauen inguruan, besteak beste: planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta haiek egiteko unea, fiskalizazioan aurkitutako gorabehera adierazgarriak, bai eta fiskalizazioan zehar identifikatzen ahal dugun barne-kontroleko edozein akats muntadun ere. Entitateko gobernu-organismoari jakinarazi zaizkion zertzeladen artean, zehazten dugu zein izan diren fiskalizazioan munta handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzan funtsezko izan diren gaiak.

X. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Ganberak NUPi buruzko bere azken txostena 2020ko abenduan jaulki zuenez geroztik, honako gomendio muntadun hauei eusten zaie:

a) *Foru Komunitatearen Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onetsi ezean, bere zabaltasun osoan aplikatzea Kontabilitate Publikorako Plan Orokorra, 2011ko urtarrilaren 1etik indarrean dagoena.*

b) *Kontabilitate analitikoa ezarriz amaitzea, eta ikertze-jarduerarekin sortzen diren kostu ez-zuzenekoak zehaztea.*

c) *Aldi baterako lan-kontratudun irakasle-ikertzaileen portzentajea betetzea, ehuneko 40 baino baxuagoa.*

Finantza- eta zuzenbide-fiskalizazioaren emaitza gisa, beste gomendio batzuk jaso dira txosten honen 4. gehigarrian.

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta jaulki da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

1. GEHIGARRIA. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN 2022KO EKITALDIKO URTEKO KONTUEN LABURPENA²**2022ko aurrekontuaren likidazioa****2022ko gastu-aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoka**

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako kreditua	Aldaketa	Bateratua	Aitortutako betebehargarbiak	Betetakoa (%)	Ordaindutakoa
Langileria-gastuak	71.088.696	12.203.362	83.292.058	77.382.097	93	77.322.944
Ond. eta zerb. gastu arruntak	14.083.712	16.138.706	30.222.418	17.493.011	58	15.170.811
Finantza-gastuak	47.600	0	47.600	20.947	44	18.947
Transferentzia arruntak	1.123.949	2.244.272	3.368.221	2.318.430	69	2.092.118
Inbertsio errealak	16.839.840	14.489.229	31.329.069	9.239.358	29	6.611.985
Finantza-aktiboak	5.000	396.568	401.568	401.510	100	1.510
Guztira	103.188.797	45.472.136	148.660.933	106.855.352	72	101.218.315

2022ko diru-sarrera aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoka

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Eskubide aitortugarbiak	Betetakoa (%)	Diru-bilketa garbia
Tasak, prezio publikoak eta bestelakoak	14.225.088	2.409.845	16.634.933	16.656.053	100	15.987.093
Transferentzia arruntak	76.775.268	19.192.456	95.967.724	91.784.738	96	91.781.621
Ondare bidezko diru-sarrerak	1.520	0	1.520	3.076	202	3.076
Inbertsio errealen besterentzea	0	0	0	6.612	-	1.653
Kapital-transferentziak	12.186.921	7.645.977	19.832.898	8.645.977	44	7.455.864
Finantza-aktiboak	0	16.061.731	16.061.731	0	0	0
Finantza-pasiboak	0	162.128	162.128	149.205	92	149.205
Guztira	103.188.797	45.472.136	148.660.933	117.245.661	79	115.378.513

2022ko aurrekontu-emaizta

Kontzeptuak	Eskubide aitortugarbiak	Betebehar aitortugarbiak	Zenbatekoak
1. (+) Eragiketa ez-finantzarioak	117.096.456	106.453.842	10.642.613
2. (+) Finantza-eragiketak	0	401.510	-401.510
I. EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA (1+2)	117.096.456	106.855.352	10.241.103
II. FINANTZA-PASIBOEN ALDAKETA GARBIA	149.205	0	149.205
III. EKITALDIKO AURREKONTU-SALDOA (I + II)	117.245.661	106.855.352	10.390.308
3. (+) Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako kredituak			1.913.207
4. (-) Finantzaketa-desbideratze positiboak, finantzabide atxikia duten gastuetan, ekitaldiko baliabideetatik.			10.182.631
5. (+) Finantzaketa atxikia duten gastuen finantzaketa-desbideratze negatiboak			-
IV. Ekitaldiko finantzaketaren superabita edo defizita (III + 3 + 4 + 5)			2.120.885

² Gure txostena NUPen 2022ko ekitaldiko urteko kontuen eranskin gisa atxikita doa.

Diruzaintza-gerakina 2022ko abenduaren 31n

Kontzeptuak		
1 (+) Kobratzeko dauden eskubideak		3.225.058
+ Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	1.867.148	
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	699.975	
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	1.278.961	
(+) Merkataritzako eragiketak	-	
(-) Eginiko kobrantzak, behin betiko aplikatu gabeak	-	
Saldo kobragaitzak	621.025	
2 (-) Ordainkizun dauden obligazioak		-9.328.055
(+) Gastu-aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	5.682.723	
(+) Gastu-aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	2.470	
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	3.642.863	
(+) Merkataritza-eragiketetatik	-	
(-) Eginiko ordainketak, behin betiko aplikazioaren zain	-	
3 (+) Funts likidoak		37.238.136
I. Diruzaintza-gerakina, guztira (1-2+3)		31.135.139
II. Atxikitako diruzaintza-gerakina		27.999.338
III. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakina (I-II)		3.135.801

Egoera-balantzea, 2022ko abenduaren 31koa

AKTIBOA	2021*	2022	PASIBOA	2021*	2022
A) IBILGETUA	120.377.560	121.083.932	A) FUNTS BEREKIAK	136.277.897	148.329.546
II. Ibilgetu ez-materialak	210.894	135.523	I. Ondarea	127.895.838	127.895.838
2. Jabetza industrialak	637.601	656.031	1. Ondarea	123.083.338	123.083.338
3. Aplikazio informatikoak	9.734.364	9.748.121	3. Lagapen bidez jasotako ondarea	5.385.399	5.385.399
6. Bestelako ibilgetu ez-materialak	179.919	179.919	5. Lagapen bidez eskuratutako ondarea	-572.899	-572.899
8. Amortizazioak	-10.340.991	-10.448.549			
III. Ibilgetu materialak	119.869.197	120.245.429	III. Aurreko ekitaldietako emaitzak	2.672.910	8.382.059
1. Lursailak eta eraikinak	173.387.793	176.100.981	1. Aurreko ekitaldietako emaitza positiboak	2.672.910	8.382.059
2. Instalazio teknikoak eta makineria	54.368.625	54.979.339			
3. Tresneria eta altzariak	19.173.940	19.518.200			
4. Bestelako ibilgetua	21.489.341	21.347.527			
6. Amortizazioak	-148.550.501	-151.700.617	IV. Ekitaldiko emaitzak	5.709.149	12.051.649
V. Finantza-inbertsio iraunkorrak	297.470	702.980	B) ARRISKU ETA GASTUETARAKO HORNIDURAK	175.810	141.925
1. Epe luzeko baloreen zorroa	291.219	692.729	c) EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	3.598.394	3.747.599
3. Epe luzerako eratutako fidantza eta gordailuak	6.251	10.251	II. Epe luzeko bestelako zorrak	3.598.394	3.747.599
B) ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK	0	0	2. Bestelako zorrak	3.598.394	3.747.599
C) AKTIBO ZIRKULATZAILEA	25.432.201	40.463.194			
II. Zordunak	1.405.273	3.225.058	D) EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	5.757.661	9.328.055
1. Aurrekontuko zordunak	2.172.591	2.567.123	III. Hartzekodunak	5.748.518	9.328.055
2. Aurrekontuko ez diren zordunak	191.986	172.818	1. Aurrekontuko hartzekodunak	2.768.373	5.685.193
4. Administrazio publikoak	623.975	1.106.142	2. Aurrekontuko ez diren hartzekodunak	164.590	566.842
5. Bestelako zordunak	0	0	4. Administrazio publikoak	2.737.079	2.994.954
6. Hornidurak	-1.583.279	-621.025	5. Bestelako hartzekodunak	0	0
III. Aldi baterako finantza-inbertsioak	0	0	6. Hartutako fidantza eta gordailuak, epe laburrekoak	78.476	81.067
1. Epe laburrerako baloreen zorroa	0	0	IV. Periodifikazioaren ondoriozko doitzak	9.143	0
IV. Diruzaintza	24.026.928	37.238.136			
Orokorra, guztira (A+B+C)	145.809.761	161.547.126	Guztira (A+B+C)	145.809.761	161.547.126

*Auditatu gabeko ekitaldia.

2022ko emaitza-kontua

ZOR	2021*	2022	HARTZEKO	2021*	2022
A) GASTUAK	99.234.513	104.967.715	B) DIRU-SARRERAK	104.943.661	117.019.365
1. Zerbitzu eta prestazio sozialen funtzio-namendu gastuak	97.265.284	102.583.725	1. Zerbitzu-ematea	12.721.519	13.096.847
a) Langileria-gastuak:	74.400.549	77.754.766	a) Zerbitzu-emateagatiko edo jarduerak egiteagatiko tasak	1.323.416	1.354.280
a.1) Soldatak, lansariak eta antzekoak	62.249.876	64.976.618	b) Zerbitzu-emateagatiko edo jarduerak egiteagatiko prezio publikoak	11.073.683	11.478.884
a.2) Gizarte-zamak	12.150.672	12.778.148	c) Jabari publikoaren erabilera pribatiborako edo aprobetxamendu bereziko prezio publikoak	324.420	263.682
c) Ibilgetua amortizatzeko zuzkidurak	7.448.036	8.939.194	2. Kudeaketa arrunteko beste diru-sarrerak batzuk	3.478.382	3.489.967
d) Trafiko-horniduretako aldeak	239.731	-962.254	a) Diru-itzulketak	41.756	23.951
d.1) Horniduren eta kobraezinak diren kreditu-engatiko galeren alorrean izandako aldea	239.731	-962.254	c) Kudeaketako beste diru-sarrera batzuk	3.434.429	3.462.941
e) Beste kudeaketa-gastu batzuk	15.155.213	16.831.072	c.1) Diru-sarrera osagarriak eta beste arrunt batzuk	3.424.332	3.429.056
e.1) Kanpoko zerbitzuak	15.140.593	16.836.319	c.2) Arrisku eta gastuetarako horniduraren gaidikina	10.097	33.884
e.2) Tributuak	3.637	-5.246	d) Kapitaleko partaidetzetatiko diru-sarrerak	2.020	2.021
e.3) Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	10.983	0	g) Kanbioan izaniko alde positiboak	177	1.086
f) Finantza-gastuak eta antzekoak	15.232	16.689	3. Transferentziak eta dirulaguntzak	88.739.070	100.401.288
f.1) Zorreatatik	15.232	16.689	a) Transferentzia arruntak	70.381.116	74.965.268
f.2) Finantza-inbertsioen galerak	0	0	b) Dirulaguntza arruntak	15.039.237	16.789.249
h) Kanbioan izaniko alde negatiboak	6.524	4.257	c) Kapital-transferentziak	3.318.717	8.645.977
2. Transferentziak eta dirulaguntzak	1.855.818	2.318.430	d) Kapital-dirulaguntzak	0	794
a) Transferentzia arruntak	62.063	98.002	4. Ezohiko irabazi eta diru-sarrerak	4.691	31.262
b) Dirulaguntza arruntak	1.793.755	2.220.427	a) Ibilgetutik heldu diren etekinak	3.850	6.612
c) Kapital-transferentziak	0	0	c) Ezohiko diru-sarrerak	841	24.651
3. Ezohiko galera eta gastuak	113.410	65.560			
a) Ibilgetutik heldu diren galerak	160	96			
c) Ezohiko gastuak	-393	0			
d) Beste ekitaldi batzuetako gastuak eta galerak	113.644	65.464			
AURREZKIA	5.709.149	12.051.649	DESAURREZKIA	0	0

*Auditatu gabeko ekitaldia.

2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

NUP-Nafarroako Unibertsitate Publikoa apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legearen bitartez sortu-tako zuzenbide publikoko erakunde bat da, nortasun juridiko berekikoa, eta eginkizuntzat irakas-kuntzaren, ikasketaren eta ikerketaren bitartezko goi-mailako hezkuntzaren zerbitzu publikoa du-ena.

Gobernu- eta administrazio-organoak

NUPen gobernu- eta administrazio-organoak honako hauek dira:

- Kide anitzeko organoak:
 - a) Esparru orokorrekoak: Gizarte Kontseilua, Gobernu Kontseilua eta Unibertsitateko Klaus-troa.
 - b) Esparru partikularrekoak: Zentroko Batzarra eta Saileko Kontseilua.
- Pertsona bakarreko organoak:
 - a) Orokorrak: errektorea, errektoreordeak, idazkari nagusia, kudeatzailea eta unibertsitateko komunitatearen arartekoa.
 - b) Partikularrak: dekanoa edo eskolako zuzendaria eta saileko zuzendaria.

Antolaketa-egitura

NUPEk bi campus dauzka, Iruñean eta Tuteran kokatuak. Azken hori, 2008-09 ikasturtean inau-guratua.

Honako hau da NUPen antolaketa-egitura:

- Lau fakultate: Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea, Giza, Gizarte eta Hezkuntza Zi-entzien Fakultatea, Zientzia Juridikoen Fakultatea eta Osasun Zientzien Fakultatea.
- Bi goi-mailako eskola tekniko: Nekazaritza Ingeniaritzako eta Biozientzietako Goi Mailako Es-kola Teknikoa eta Industria, Informatika eta Telekomunikazio Ingeniaritzako Goi Mailako Eskola Teknikoa.
- 11 departamentu: Agronomia, Bioteknologia eta Elikadura; Zientziak; Osasun Zientziak; Giza eta Hezkuntza Zientziak; Zuzenbidea; Ekonomia; Estatistika, Informatika eta Matematika; Enpre-sen Kudeaketa; Ingeniaritza; Ingeniaritza Elektrikoa, Elektronikoa eta Komunikaziokoa; eta Sozio-logia eta Gizarte Lana.
- Zazpi ikerketa-institutu: Mutiloa Ikerketa Institutua (lehenago Agrobioteknologia Institutua ze-ritzona), Institute of Smart Cities (ISC), Institute for Advanced Materials (INAMAT), Institute for Advanced Research in Business in Economics (INARBE), Institute on Innovation & Sustainable Development in Food Chain (ISFOOD), Institute for Advanced Social Research (ICOMUNITAS) eta Institute for Multidisciplinary Research in Applied Biology (IMAB).
- Elektronikaren eta Komunikazioaren arloko I+G zentro bat: Jerónimo de Ayanz.
- Doktoretza-eskola bat.
- 18 katedra (2022an jardunean zeudenak): "Energia Berriztagarrien Katedra", "Hiritartasunari, Bizikidetzari eta Aniztasunari buruzko UNESCO Katedra", "Nafarroako Ondare Materiagabearen Katedra", "AN Taldearen Katedra", "Iritzi Publikoari eta Berrikuntza Sozialari buruzko Nafarroako Parlamentuaren Katedra", "4.0 Industriaren Katedra, Nafarroako Industria Ingeniaritzako Gradu-a-tuen eta Ingeniari Teknikoen Elkargoa", "Jakintza eta Kultura Zientifikoa Zabalteko Katedra", "En-presa Familiarren Katedra", "Ingeniaritzaren eta Enpresaren Katedra", "Emakumearen, Zientziaren eta Teknologiaren Katedra", "Zientziaren eta Ondarearen Errege Bardea Katedra", "Aprender-Ikasi Nafarroako Kutxa Fundazioa", "Biologia Sintetikoa-CNTA Katedra", "Logistikaren Katedra", "To-

kiko Jasangarritasunari buruzko NILSA Katedra”, “Genero Ikasketen eta Ikerketa Feministen Katedra”, “Nekazaritzako Elikagaien arloko Transferentziaren eta Berrikuntzaren Katedra” eta “Ekonomia Sozialaren eta Kooperatibismoaren Katedra”.

- Hezkuntzaren berrikuntzarako goi mailako zentro bat.
- Ikerketa biomedikoko zentro publiko misto bat (Nafarroako Gobernu/NUP), Navarrabiomed-NUP izeneko.

Lotutako entitateak

Unibertsitatea-Gizartea Fundazioa (aurrerantzean, fundazioa) Gobernu Batzarraren 1996ko abenduaren 20ko erabaki baten bidez sortu zen, 24.040 euroko ekarpena eginda hasieran. Sorrerako helburu gisa zuen elkarriketa sustatzea eta NUPen eta Nafarroako gizartearen arteko lankidetza bideratzea. 2022an, NUPek 0,40 milioiko ekarpena egin zuen, 2023an egon zitezkeen aurrekontu-desorekak samurtzeko.

Fundazioaren gobernu-, zuzendaritza- eta administrazio-organoak Patronatuko Batzarra, Zuzendaritza Batzordea eta zuzendari kudeatzailea dira.

NUPek halaber parte hartzen du hurrengo orrialdeko koadroan zehazten diren entitateetan, bere oroitidazkian azaltzen duenez.

Entitatea	Inbertsioaren urtea	Zenbatekoa
Start Up Capital Navarra SA	200. eta 2017. urteak	34.594
Portal Universia, SA	2001	13.465
Sigma Gestión Universitaria, AIE	1996. eta 2002. urteak	200.137
Amado Alonso Fundazioa	2001	1.202
Campus Iberus Partzuergoa	2012	3.000
Nadotech Innovations SA	2015	8.000
Naudit High Performance Computing and Networking, SL	2015	1.782
Movalsys SL	2016	1.150
Eversens, SL	2017	417
Bioinsentics SL	2017	1.000
Pyroistech S.L.	2019	320
Neuraptic S.L.	2020	2.102
Eversens SL	2021	9
Genbioma Aplicaciones S.L.	2022	152
Menditech Sensores de Fibra Óptica S.L.	2022	158
Vors Control S.L.	2022	150
Tairel Data S.L.	2022	1.050
Guztira		692.729

Oroitidazkiak halaber azaltzen du helbide soziala NUPen duela Jaime Brunet Fundazioak, zeinaren helburua baita giza duintasunarekiko, oinarrizko askatasunekiko eta giza eskubideekiko begirunea sustatzea.

Araubide ekonomiko-finantzarioa, aurrekontu-alorrekoa eta kontabilitatekoa

Nafarroako Gobernuak 2021eko abenduaren 1ean hartutako erabakiaren bidez onetsi egin zen NUP 2022-2024 epean finantzatzeko Hitzarmen Urteaniztuna, non Nafarroako Gobernuaren konpromisoa jaso baitzen, Unibertsitateko irakaskuntza- eta ikerketa-jardueraren funtzionamendu normala bermatzekoa eta haren autonomia finantzarioa sustatzekoa.

NUPek, bere aldetik, bere gain hartu zuen konpromisoa izan zen eraginkortasunez kudeatzea Nafarroako goi-mailako hezkuntzaren zerbitzu publikoaren obratze-ardura, eta 2023ko abendurako bukatzea kostu-kontabilitatearen ezarpena.

Kontabilitate analitikoaren ezarpenari dagokionez, 2021eko maiatzean NUPek kontratu bat sinatu zuen, 109.809 eurokoa (BEZa kanpo), bere kostu-eredua pertsonalizatzekoa. Amaiera aurreikusia 2022ko abendua zeukan. 2021eko azaroan NUPek exekuzio-epea aldatu, eta 2023. urtea ezarri zuen amaiera-urte bezala, arrazoi teknikoengatik.

Gero batean, 2022ko urrian, NUPek berriz aldatu zuen kontratuaren exekuzio-epea, lanen hasiera atzeratu zuten arrazoi teknikoen eta antolaketa-arrazoen ondorioz. Aldaketa honen txostenean azaltzen denez, mugarren kronograma zaila da zehazten, eta horrenbestez, kontratu-exekuzioa irekita uzten da.

2022rako Nafarroako aurrekontu orokorretatiko finantzaketa 77,37 milioikoa da. Finantzaketa hori osatzen da Unibertsitateari emandako baimenarekin, hain zuzen 2021eko ekitaldiko gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina, bi milioikoa, erabiltzekoa.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak 123. artikuluan ezartzen du ezen Ekonomia eta Ogasun Departamentuari dagokiola Foru Komunitateko Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra (KPPO) onestea, eta berariazko onespenera ezean Estatu-sektorerako onetsitako Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra (KPPO, aurrerantzean) aplikatuko dela.

Txosten hau egin den bitartean, Foru Komunitatearentzako planak onetsi gabe dirau. NUPek, 2022ko ekitaldian, 2010eko KPPOko kontabilitate-arau eta -printzipio batzuk aplikatu zituen; halere, bere urtealdi-kontuak 1994ko KPPOaren arabera aurkeztu dira.

2020-2023 plan estrategikoa

Gizarte Kontseiluak 2020ko uztailaren 3an onetsi zuen NUPen V. Plan Estrategikoa, 2020-2023 aldirakoa. Lan-ildoak hiru ardatz estrategikoren inguruan biltzen dira: unibertsitate-eraldaketa, eza-gutzaren ekonomian oinarrituriko garapen jasangarria, eta posizionamendua. Ardatz horietako bakoitzean, planak definitzen du zein diren horren helburu estrategikoak, helburu operatiboak, ekintzak, adierazleak eta arduraduna.

Segimendu-txostenak egin dira 2021 eta 2022an gauzaturiko ekintzei buruz, eta ondorioztatu da plana egokiro ezarri dela eta, oro har, plana osatzen duten jarduketak kronograma aurreikusia-aren arabera obratzen ari direla eta jarritako helburuak erdiesten ari direla. Horren erakusgarri da segimendu-adierazlerik gehienek hobera egin dutela.

Adierazle ez finantzarioen bilakaera

Txosten honen I. eranskinean erakusten dugu NUPi buruzko adierazle ez-finantzarioen multzo baten 2020-2022 epealdiko bilakaera.

3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

2022an NUPi aplikatzekoa zaion zuzenbide-esparrua honako arau hauek osatzen dute, funtsean:

- Haren sorrerari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legea.
- Estatutuak, maiatzaren 12ko 110/2003 Foru Dekretuaren bidez onetsiak.
- 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 15/2008 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluari buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 18/2021 Foru Legea, abenduaren 29koa, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, Nafarroako administrazio publikoetan 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoaren finantzaketarako 2022-2024 hitzarmena, 2022ko ekitaldirakoa.
- Barne Kontroleko Erregelamendua, Gobernu Kontseiluak 2018ko otsailaren 21ean onetsia.
- 2022ko aurrekontua exekutatzeko oinarriak eta ekitaldi-itxierako arauak.
- 6/2001 Lege Organikoa, Unibertsitatei buruzkoa, abenduaren 21ekoa, eta hori garatzen duten xedapenak³.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 20koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu Publikoan dagoen Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurriena.
- 22/2021 Legea, abenduaren 28koa, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

³ Lege hori indarrrik gabe utzi zuen martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoak, Unibertsitate Sistemari buruzkoak.

4. GEHIGARRIA. ERREGULARTASUNARI BURUZKO FISKALIZAZIOKO OHARRAK ETA BESTE AURKIKUNTZA BATZUK

Ondoren ohar, iruzkin eta argibide gehigarri batzuk jasotzen dira, Ganbera honen ustez fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesekoak gerta daitezkeenak.

Halaber jasotzen dira Ganbera honen iritziz NUPen eta haren fundazioaren kudeaketa ekonomiko eta administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

4.1. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN 2022KO AURREKONTUA

NUPeko Gizarte Kontseiluak 2021eko abenduaren 23an onetsi zuen NUPen 2022rako hasierako aurrekontua, 103,19 milioikoa, diru-sarrera eta gastuetan.

Hasierako kredituek 45,47 milioiko aurrekontu-aldaketa garbiak izan dituzte, eta horrek esan nahi du ehuneko 44ko igoera izan dela. Horri buruz, hauxe esan behar dugu:

- Gastuetan, nabarmentzen da ondasun arrunt eta zerbitzuetan izandako 16,13 milioiko gehikuntza –hasierako kredituaren ehuneko 115eko igoera, hain zuzen–, inbertsioetako 14,49 milioiko gehikuntza (ehuneko 86, hasierako kredituekiko), eta langileria-gastuek izandakoa, 12,20 milioikoa (ehuneko 17, hasierako kredituarekiko).
- Diru-sarreretan, igoerarik handienak honako hauetan gertatu dira: transferentzia arruntak —19,19 milioi— aktibo finantzarioak —16,06 milioi— eta kapital-transferentziak —7,65 milioi—.
- Hona hemen 2022an onetsitako aurrekontu-aldaketak:

Aurrekontu-aldaketa mota	Zenbatekoa
Kreditu gehikuntza	202.993
Kreditu bereziak edo kreditu-gehigarriak	2.000.000
Kreditua sartzea	14.110.132
Kreditua sortzea	29.289.993
Baliogabetzeen ondoriozko bajak	-130.981
Guztira	45.472.136

Aurreko taulan ez dira kreditu-transferentziak sartu, zeren eta eragiketa horiek ez baitute aurrekontu-eraginik kredituen guztizko zenbatekoan.

Aurrekontu-aldaketa bat aztertu dugu, zeina kreditu-gehigarri baten bidez gauzatu baita, 2. kapituluko gastuak finantzatzeko. Gure berrikuspena egin ondoren, honako zertzelada hauek adierazi behar ditugu:

- Ekonomiako, Plangintzako eta Estrategiako errektoreordeak eta kudeatzaileak aurkezturiko txostenean jasotzen denez, NUPen 2023ko ekitaldirako aurrekontuak prestatzeko prozesuan, finantzatze-aurreikuspenek egoera ekonomiko hagitx korapilatsua iragartzen zuten, eta horrek erakundea behartzen zuen neurri urgenteak hartzera; hots, ordaintze aurreratua izateko modukoa zeukaten kontzeptu guztien ordainketa aurreratuz.

- NUPen urte anitzeko finantzaketarako 2022-2024 hitzarmenaren jarraipen-batzordean, zeina 2022ko urriaren 4an egin baitzen, unibertsitateak eskatu zuen 2023ko aurrekontuan jasotako diruzaintza-gerakin atxikigabeko lau milioi erabiltzea diru-sarreraren eta gastuen arteko desorekari aurre egiteko, zeina, hein handi batean, energiaren (argindarra eta gasa) garestitzearen eta soldaten gorakadaren ondoriozkoa baitzen. Nafarroako Gobernuak errefusatu egin zuen eskaera hura, Europar Batasunak markatutako 0,6 puntuko defizit-muga bete beharra zegoelakoan.

- Ezezko horren ondorioz, 2022ko urriaren 21ean NUPek eskatu zuen 2022an eskuragarri zegoen bi milioiko diruzaintza-gerakin atxikigabea erabiltzea gastu batzuk egiteko, 2023ko aurrekontua orekatuko zutenak, zeina une hartan prestatze-fasean baitzegoen. Arrazoia izan zen ezen xede horretarako erabili ahalko ziren baliabideak jadanik bideratuak izan zirela 2022an soldata-gorakadari eta energiaren kostuari aurre egitera.

- Gobernuaren 2022ko urriaren 26ko erabaki bidez, NUPi baimena eman zitzaion 2022ko bi milioiko diruzaintza-gerakin atxikigabea erabiltzeko.
- Behin onetsita, partida zehatz batzuetarako 1,6 milioirainoko kreditu gehigarria izapidetu zen. Gainerakoa, bi milioietara iritsi arte, geroago eskatu zen, beharrak hartaratu ahala. Eskaera horiek NUPeko Gizarte Kontseiluaren akordioen bitartez onetsi ziren.
- NUPeko aurrekontua exekutatzeko oinarrien arabera, kreditu gehigarriak izapidetuko dira gastu bat egin behar denean, hurrengo ekitaldira arte atzeratu ezin dena, kasuko aurrekontu-partidako kreditua urriegia izanik.

Egiaztatu dugunez, onetsitako 1,60 milioietatik 1,37 milioi bideratu ziren 2023ko gastuak aurretzera, zerikusia zutenak aldizkari-harpidetzekin eta aseguru-primekin, nahiz eta ez ziren gerora-ezintzat jotzeko moduko gastuak; eta kontabilitate-sortzapenaren printzipioa ere urratu egin zen, horrek kontabilitateko egoera-orrietan kasuko efektuak eraginda.

Gure konklusioak kontuan harturik, gomendatzen dugu aurrekontuan aldaketak egiten direnean bete daitezela aurrekontua exekutatzeko oinarrietan ezarritako baldintzak.

Aurrekontu-likidazioa

Behin betiko kredituak 148,66 milioikoak izan dira, aipatutako aldaketak egin ondoren. Behin betiko kreditu horietatik, 45,41 milioi atxikiak dira; eta gainerakoa, berriz, 93,25 milioi, atxiki gabe-koak.

Aitortutako betebeharrak 106,86 milioikoak izan dira, eta ehuneko 72ko betetze-maila izan dute. Nabarmendu behar ditugu langileen arloko gastuen betetze-portzentaje handia (ehuneko 93) eta portzentaje txikia, ordea, inbertsioetan (ehuneko 29) eta ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntetan (ehuneko 58).

Aitortutako eskubideek 117,25 milioi egin dute, eta betetze-maila ehuneko 80a izan da. Honako hauek dira portzentaje handiena duten kapituluak: tasak eta prezio publikoak, ehuneko 105ekin, eta transferentzia arruntak, ehuneko 96rekin.

Honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

- 2022an NUPek gastatutakoaren xedeak eta finantzaketa-iturriak, 100 euro bakoitzeko:

Gastuaren izaera	Zenba-	Finantzaketa-iturria	Kopurua
Langileak	73	Tasak, prezio publikoak	14
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	16	Transferentzien bidezko diru-sarrerak	86
Transferentzien bidezko gastuak	2		
Inbertsio errealak	9		
	100		100

- Hurrengo taulan, NUPen 2022ko gastu-politikak erakusten ditugu:

Gastu-politika	Gastuaren zenbatekoa
Irakaskuntzaren eta ikerketaren garapena	50.729.974
Orotariko jarduerak	30.925.131
Ikerketa zientifikoa, teknikoa eta aplikatua	16.527.453
Irakaskuntzaren kudeaketa	4.100.716
Unibertsitate-hedapena	1.964.567
Kanpo-harremanak	1.834.524
Gizarte-ekintza	772.987
Guztira	106.855.352

2017an NUPen gastuak honako ardatz nagusi hauek izan ditu: irakaskuntzaren eta ikerketaren garapena —ehuneko 47—, jarduera orokorrak —ehuneko 29— eta ikerketa zientifiko, tekniko eta aplikatua —ehuneko 17—.

- Hurrengo taulan, 2021 eta 2022ko aurrekontu-likidazioarekin zerikusia duten adierazleen mul-tzo baten balio-alderaketa bat erakusten dugu:

Adierazleak eta magnitudeak	2021 ⁽¹⁾	2022	(milakotan)
			Aldea (%), 2022- 2021
Gastua, guztira	97.458	106.855	10
Gastu arruntak (1etik 4ra bitarteko kapituluak)	91.214	97.214	7
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kap.)	91.193	97.194	7
Kapital-gastuak (6. eta 7. kap.)	6.244	9.239	48
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kap.)	9	402	4.367
Diru-sarrerak, guztira	104.865	117.246	12
Tasen, prezio publikoen eta bestelako bitarteko diru-sarrerak (3. kap.)	16.046	16.656	4
Tasen bidezko diru-sarrerak gastu arruntetan zenbat egiten duten (%)	18	17	-3
Diru-sarrera arruntak (3. kapitulutik 5.era)	101.592	108.444	7
Transferentzien bitarteko diru-sarrerak	88.734	100.431	13
Transferentzien bidezko diru-sarrerak zenbat egiten duten diru-sareren guztizkoan (%)	85	86	1
Finantza eragiketen diru-sarrerak (8. eta 9. kap.)	-50	149	398
Etorbizuneko ekitaldiarako aurrekontu-gastuen konpromisoak	7.419	8.699	17

(1) Auditatu gabeko ekitaldia.

Horiek aztertuta, ondokoak adierazi behar ditugu:

- 9,40 milioiko guztizko gastuaren gorakada, gehienbat, langileria-gastutik eta inbertsioetatik eratorria da, hurrenez hurren 3,36 eta 2,99 milioiko gehikuntza izan baitute. Diru-sarrerak -12,38 milioi- izandako gorakada batez ere zor zaio transferentzia arruntan eta kapital-transferentzien areagotzeari: 6,37 eta 5,33 milioi, hurrenez hurren.

- Funtzionamendu-gastuek ehuneko zazpiko gorakada izan dute aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Inbertsioek ehuneko 48ko hazkundera izan dute (2,99 milioi), batez ere gastu handiagoa egiteagatik funts bibliografikoetan (1,12 milioi), eraikinetan (0,95 milioi) eta ikerketa-proiektuetan (0,83 milioi).

- Eragiketa finantzarioetan eginiko gastuek gorakada nabarmena izan dute, guztira 401.510 euroetaraino iritsita, eta 2021ean kontabilizaturiko bederatzi euroei kontrajarrita. Zenbateko horren osotasun ia erabatekoa (400.000 euro) dagokio erakundearen 2023ko aurrekontuan balizko desorekak eragotze aldera fundazioari eginiko ekarpen bati.

- Diru-sarrera arruntek ehuneko zazpiko gehikuntza izan dute; nagusiki, transferentzia arruntek izandako ehuneko zazpiko gehikuntzaren ondorioz (6,37 milioi).

4.2. NUPEN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2022KO ABENDUAREN 31N

Hurrengo taulan, NUPen 2021. eta 2022. urteetako egoera ekonomiko-finantzarioarekin zerikusia duten adierazle batzuen bilakaera erakusten dugu:

Adierazleak	2021*	2022	(milakotan)
			Aldea (%) 2022/2021
Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa	7.457	10.643	43
Aurrekontu-emitza doitua	2.434	2.121	-13
Aurrezki gordina	10.400	11.250	8
Finantza-zama (gastuen 3. eta 9. kapituluak)	21	20	-5
Aurrezki garbia	10.379	11.230	8
Diruzaintzako gerakina, guztira	19.684	31.135	58
Atxikitako diruzaintza-gerakina	14.110	27.999	98
Atxiki gabeko diruzaintza-gerakina edo gastu orokorretarako	5.574	3.136	-44
Funts berekiak	136.278	148.330	9
Zorak diru-sarrera arruntan gainean egiten duen ehuneko	4	3	-25
Diruzaintza	24.027	37.238	55

*Auditatu gabeko ekitaldia.

Arestiko datu horiek kontuan hartuz, ondoko alderdiak aipatu nahi ditugu:

- Aurrekontu-emaizta doituak ehuneko 13ko beherakada izan du 2021ekoaren aldean (0,31 milioi), 2022ko finantzaketa-desbideratze positiboengatik (10,39 milioi), zeinek gainditu egiten baituzte, ehuneko 40an, aurreko ekitaldikoak.

- Aurrezki gordinak eta garbiak ehuneko zortzi egin dute gora, diru-sarrera arruntek gorakada handiagoa izan dutelako gastu arruntek baino. Eta ez da finantza-zamaren gorakadarik izan, ehuneko bosteko murrizketa izan baitu.

- Finantza-karga 20.947 eurokoa izan zen: munta txikiko zenbatekoa, aurreko urteetan gertatu izan den bezalaxe.

- Guztizko diruzaintza-gerakinak ehuneko 58ko gorakada izan du; hots, 11,45 milioikoa. Dituen osagaiak aztertuz, ikusten dugu ezen atxikitako gerakinak ehuneko 98ko gorakada duela (13,89 milioi), Next Generation funtsengatik (6,15 milioi) eta Sario eraikinean Nafarroako Berrikuntza Digitalerako Gunearen egoitza fisikoa izan dadin eginkizun den inbertsio baterako finantzaketa jasotzeagatik, 3,99 milioikoa, horren exekuzioa hutsaren hurrengoa izanda. Atxiki gabeko gerakinak ehuneko 44 egin du behera (2,44 milioi).

- Balantzearen pasiboan, epe luzeko zorpetzerako kontu bat dago erregistratuta, 3,75 milioiko zenbatekoa duena, ia osorik dagokiena aurreordain berreskuragarri, zeinak jaso baitziren 90 ikerketa-proiektu egiteko 2011tik 2022ra arte. Proiektu horietatik gehienak jadanik amaitu dira, eta ez dira pasibotik kendu, finantzatze-entetik berreskurapenak eskatzearen kasurako; zehazki, 90 proiektuetatik 48k, zeinen saldoa 3,24 milioikoa baita, ez dute mugimendurik izan duela bost urtetik.

Hitz batean: 2022ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioaren azterketatik ondorioztatzen dugu ezen NUPek egoera ekonomiko saneatua agertzen duela. Adierazle ekonomiko eta finantzarioek balio positiboak erakusten dituzte, diruzaintzako saldoa 37,24 milioikoa izanda eta atxiki gabeko diruzaintza-gerakina, 3,14 milioikoa.

Gure laneko konklusioak kontuan hartuta, gomendatzen dugu zorpetzearen saldoa murriztu dadila, gutxienez ere, aipatu 3,24 milioietan.

4.3 LANGILERIA-GASTUAK

Unibertsitateen Lege Organikoko 81.4 artikulua ezarri bezala, Nafarroako Gobernuak, 2021eko abenduaren 1ean, NUPen aurrekontuaren onespeneren aurretik, haren langile-gastuen kostua baimendu zuen, guztira 71,09 milioian. NUPen 2022rako aurrekontuak xehetasunezko informazioa dauka, bere langileei —irakasle eta ikertzaileei (IIL) nahiz administrazio eta zerbitzuetako langileei (AZL)— buruzkoa, kopuruari, kategoriari eta kostuei dagokienez. Horrekin batera, bi langile mota horien lanpostuen zerrenda jasotzen du. Hala eta guztiz ere, eta lehen aipaturiko 81.4 artikulua dienez bestela, eranskin bat falta du, proposatuko diren hornitze berriko lanpostuen berri emanen lukeena.

2022an, langile-gastuak 77,38 milioikoa izan dira; guztizko gastuaren ehuneko 72, hain zuzen. Horietatik, ehuneko 50 dagokie irakasle eta ikertzaileen ordainsariei; ehuneko 24, administrazio eta zerbitzuetako langileen ordainsariei; eta ehuneko 10, ikerketa-enplegatuei. Horiek honela banatzen dira gastu-kontzeptuaren arabera:

Langileria-gastuak	Aitortutako betebeharrak 2021*	Aitortutako betebeharrak 2022	(milakotan)
			2022/2021 aldea (%)
IILen lansariak	35.454	38.285	8
AZLen lansariak	19.690	18.545	-6
IELen lansariak	6.486	7.566	17
Beste ordainsari batzuk	365	462	27
Gizarte-zamak	11.844	12.235	3
Prestakuntza	185	290	57
Langileria-gastuak, guztira	74.024	77.382	5

*Auditatu gabeko ekitaldia.

2021eko ekitaldiarekin alderatuz gero, langile-gastuak ehuneko bost hazi dira. Hazkunde hori gehienbat da langileriaren ordainsariek izandako ehuneko 3,5eko gorakadaren eta ikerketa-enplegatuen kopuruak izandako areagotzearen ondorio.

Irakasle eta ikertzaile diren langileak (IIL)

2022ko abenduaren 19ko Gobernu Kontseiluaren erabakiz, Unibertsitateko IILen lanpostuen zerrenda onetsi zen. 1.334 lanpostu dira. Langile-kategorien arabera, honela sailkatzen dira:

Kategoria	2021	2022
Funtzionarioak	434	435
Unibertsitateko katedraduna	117	119
Unibertsitateko titularra	309	310
Unibertsitate-eskolako katedraduna	2	-
Unibertsitate-eskolako titularra	5	4
Zerbitzu eginkizunetan dagoen irakaslea	1	2
Kontratatutak	816	899
Kontratatutako doktorea	200	200
Doktore laguntzailea	72	62
Laguntzailea, LOUren arabera	2	8
1. motako irakasle elkartua	71	98
2. motako irakasle elkartua	336	363
3. motako irakasle elkartua	116	143
Ordezko irakaslea	14	18
Irakasle bisitaria	4	6
Ikerlari doktore mugagabea	1	1
PDI, guztira	1.250	1.334

2022ko abenduaren 31n, IILen lanpostuak 1.334 ziren; horietatik, 257 lanpostu hutsik zeuden, honako koadroak erakusten duenez:

Postuak	2022
Lanpostuak, guztira	1.334
Hutsik	257 ⁴
Lanpostu guztien gaineko lanpostu hutsak (%)	19
Aldi baterako estalitako lanpostu hutsak	102
Estalitako lanpostu hutsak lanpostu hutsen guztizkoaren gainean (%)	40

Lanpostu huts guztietatik, 102 lanpostu okupatuta zeuden. Okupatutako lanpostu huts horietatik, 101 dira bitartekotasuneko lan-araubideko kontratupeko irakasle doktoreentzakoak, eta bat, ikerlari doktore mugagabe baterako.

⁴ Erreserba-egoeran dauden 31 lanpostu huts ere ageri dira, okupatu gabekoak.

Ordezte-tasaren ondoriozko 2022rako enplegu publikoaren eskaintzak, zeina 2022ko martxoaren 1ean argitaratu eta 2022ko abuztu eta urrian aldatua izan baitzen, honako IIL postu hauek jasotzen zituen:

IIL lanpostua	Kopurua
Unibertsitateko katedraduna ⁵	28
Unibertsitateko titularra	2
Irakasle kontratatua, doktorea	40
Guztira	70

Txosten honen prestatze-aldian, ordezte-tasei dagokienez lanpostu guztietarako deialdia egin da, 11tarako izan ezik (zortzi, kontratupeko doktoreentzat; bi, unibertsitate-katedradunentzat; eta bat, unibertsitate-titular baterako)⁶. Aurreko urteetako enplegu publikoaren eskaintzei dagokienez, oraindik deitu gabe daude 2020ko eskaintzako hiru postu eta 2021ekoko beste hiru; guztiak kontratupeko irakasle doktorerako.

2021eko egonkortzeari dagokionez, Enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko neurri urdentei buruzko uztailaren 6ko 14/2021 Errege Lege-dekretuaren arabera, bai eta Enplegu Publikoan dagoen Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen arabera ere, eskaintza publikoa eta hautaprosesuak 2021eko eta 2022ko abenduaren 31 baino lehen onetsi behar ziren, hurrenez hurren. NUPek bete egin zituen baldintza horiek, 27 lanpostuko eskaintza onetsiz; eta aipatu prozesuak bukatuta daude jada.

Egiaztatu dugu ezen ordezte- eta egonkortze-tasagatik enplegu publikoaren eskaintzetan jasotako postuek bete egiten zituztela araudian ezarritako baldintzak. Egonkortze-tasan jasotako postuei dagokienez, ezinezkoa zaigu esatea ez dagoela jasorik egon beharko lukeen postu gehiagorik; izan ere, eskaintzan jasotakoen kopurua zehazteko erabili zen prozedura eskuzkoa izan zen, Zerbitzu Informatikoari eskaturiko berriazko zerranda batean oinarritua, eta egindako berrikuspenaren nondik norakoak ez ziren kasu guztietan jasota utzi.

Bestetik, Unibertsitateen Lege Organikoak ezartzen du honako portzentaje hauek bete beharrekoak direla:

- Kontratatzen diren irakasle eta ikerlarien portzentajeak, lanaldi osoko baliokidetasunen bidez zenbatuta, ezin izanen du gainditu irakasle eta ikerlari guztien ehuneko 49.

NUPeko Gardentasun Atarian jasotzen diren datuen arabera, portzentaje hori honako hau izan zen, 2021erako eta 2022rako:

	2021	2022
Kontratupeko langileen portzentajea, lanaldi osoko baliokidetasunean / lanaldi osoko IIL baliokideak	50,55	53,93

2022an, portzentajeak ehuneko 53,93 iristen du. Kopuru hori ez da araudiak ezartzen duen ehuneko 49a baino nabarmenki handiagoa, baina ehuneko 7 egiten du gora, 2021ekoarekin alderatuta.

- Aldi baterako lan-kontratupeko irakasle eta ikerlarien portzentajeak ezin izanen du gainditu irakasle-plantillaren ehuneko 40.

Kasu honetan, NUPeko 2021eko eta 2022ko portzentajea honakoa izan zen:

	2021	2022
Aldi baterako lan-kontratupeko IILen % / irakasle-plantillako langileak	62,71	63,07

⁵ Halaber, barne-sustapeneko unibertsitateko katedradun izatea betekizun duten 28 postu ere jaso ziren, ordezte-tasarako zenbatzen ez direnak. Horietatik, txosten honen prestatze-aldian 12 daude oraindik deitzeko.

⁶ Postu horiek ez dira deitu, araudiak ziurtagiri jakin bat lortua duten ikerlariarentzat edo programa jakin batzuetakoak diren beste ikerlari batzuentzat erreserbatutako lanpostuak direnez gero.

Kasu honetan, portzentajea nabarmenki handiagoa da araudiak ezartzen duena baino; dena den, araudiak ez du zehazten ea langileek lanaldi osoko baliokidetasuna izan behar duten. Zertzelada hori aintzat hartuz lortu dugu portzentajea, eta honakoa da emaitza:

	2021	2022
Aldi baterako lan-kontratupeko lanaldi osoko baliokidetasuna duten IILen % / lanaldi osoko baliokidetasuna duten irakasle-plantillako langileak	43,24	42,21

Nahiz eta portzentajeak araudian ezartzen den ehuneko 40 baino gehiagokoa izaten segitzen duen, aldea nabarmenki jaitsi da, aurreko datuekin erkatuta.

Administrazioko eta zerbitzuetako langileak (AZL)

Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen urtarrilaren 12ko 41/2023 Ebazpenaren bidez onetsi ziren plantilla organikoa eta Unibertsitatean AZLen izendapen askeko zuzendaritza-karguetan diharduten langile finkoen eta bitartekoen zerrenda, 2022ko abenduaren 31koak. Ebazpen hori 2023ko urtarrilaren 27ko NAO n argitaratu zen.

Onetsitako plantillako lanpostuak 554 dira. Honako hau da haien sailkapena, araubide juridikoren arabera:

Araubide juridikoa	2021	2022
Funtzionarioak	533	537
Izendapen askeko zuzendaritza-kargua, behin behinekoa	4	4
Kabineteko behin-behineko langileak	14	13
Guztira	551	554

2022ko abenduaren 31n, AZLetako funtzionario-lanpostuak 554 ziren, honela banatuta:

	Postu-kopurua
Lanpostuak, guztira	554
Hutsik	214
Lanpostu guztien gaineko lanpostu hutsak (%)	39
Aldi baterako estalitako lanpostu hutsak	157
Betetako lanpostu hutsak lanpostu hutsen guztizkoaren gainean (%)	73

2022an, AZLen lanpostu guztien ehuneko 39 hutsik zeuden, eta horien barruan, ehuneko 73 aldi baterako beteta zeuden.

Egonkortze-prozesuez denaz bezainbatean, esan behar da ezen NUP, Gobernu Kontseiluaren 2022ko irailaren 23ko Erabakiz, partzialki atxiki zitzaioela uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legean xedatuari, eta berariaz arautu zituela bere ustez, eta zituzten ezaugarri bereziengatik, bestelako araubide baten beharrez zeuden zertzeladak. Hori kontuan harturik, enplegu publikoaren eskaintzak, zeina 2022ko maiatzeko eta azaroko NAO n argitaratu baitzen bi ebazpenetan, guztira 20 postu jasotzen ditu; horietatik, 13 dagozkie egonkortzeari buruz araudiak dioena betetzeari, eta zazpi, ordezte-tasa betetzeari.

Txosten hau idaztean, aipatu postu guztietarako deialdiak eginda daude, bai eta aurreko urteetako eskaintzetan onetsietarakoak.

Egiaztatu dugunez, ordezte- eta egonkortze-tasengatik enplegu-eskaintza publikoetan jaso diren postuen kopuruak bete egiten zituen araudiak ezarritako betekizunak. Egonkortze-tasekin zerkusia duten postuei dagokienez, ezin dugu aldarrikatu ez dagoenik jaso beharko zatekeen postu gehiagorik, ezen eskaintzan jasotako kopurua zehazte aldera erabilitako prozedura eskuzkoa izan zen, Zerbitzu Informatikoari eskaturiko berariazko zerrenda batean oinarritua, eta egindako berri-kuspenaren berri ez da kasu guztietan eman.

Langile ikertzaileak

IILez eta AZLez gainera, Unibertsitatean zerbitzuak ematen dituzte, 2022ko abenduaren 31n, ikerketa-jarduerekin zerikusia duten 285 pertsonak. Hau da, prestakuntzan diharduten langile ikertzaileak, langile ikertzaileak, eta ikerketa-proiektuen, Unibertsitateen Lege Organikoko 83. artikuluko kontratuen edo lankidetzatza-hitzarmenen kargura diharduten laguntza-langile teknikariek.

Langileak eta aldibaterakotasun-indizea 2022ko abenduaren 31n

- 2022ko abenduan 1.939 pertsonak jaso zuten nomina NUPen, xehakapen honen arabera:

	Funtzionarioak	Kontratadunak	Guztira
Irakasle eta ikertzaile diren langileak (IIL)	365	783	1.148
Administrazioko eta zerbitzuetako langileak (AZL)	310	196	506
Langile ikertzaileak (LI)	-	285	285
Langileak, guztira	675	1.264	1.939

Langileen ehuneko 59 IILak dira; ehuneko 26, AZLak, eta gainerakoak, ehuneko 15a, LLak.

Txosten honekin batera doan II. eranskinean, NUPeko abenduaren 31ko egiazko langileen 2019-2022 urteetako bilakaera agertzen da.

- 2021eko eta 2022ko abenduaren 31n NUPeko langileen aldibaterakotasun-indizea, zeina neurtu baita zatiketa eginez lanpostu huts okupatuen eta plantilla-lanpostu okupatuen artean, honakoa da:

Lanpostu huts okupatuak / plantilla-lanpostu okupatuak	2021	2022
Aldibaterakotasun-indizea, IIL	10,1	8,9
Aldibaterakotasun-indizea, AZL	45,1	45,6

IILentzako aldibaterakotasun-indizea ere (ehuneko 8,9) nabarmenki baxuagoa da AZLena baino (45,6). 2021eko datuekin alderatuta, IILen indizeak ehuneko 12 behera egin du, AZLenak ehuneko bat gora egin bitartean.

Langile-gastuaren egiaztapenak

- IIL eta AZL langileek 2022ko maiatzean izandako nominako ordain-kontzeptu batzuen lagin bat berrikusi dugu, jarraian zehaztu bezala:

- IIL: oinarritzko soldatarekin zerikusia duten bi nomina-kontzeptu aztertu ditugu, nola baitira destinoko osagarriarena eta berariazko osagarriarena, zeinak jasota ageri baitira 843 pertsonak jasotako 1.515 erregistrotan, zeinen zenbatekoak 1,64 milioi egiten baitu.
- AZL: zortzi nomina-kontzeptu aztertu ditugu, ⁷1.979 erregistrori eta 491 pertsonari zegozkienak, eta guztira 1,03 milioi egiten zutenak.

Egiaztatu dugu langile aztertuek behar bezala jaso dituztela plantillak ezarritakoari jarraikiz berrikusitako ordain-kontzeptu guztiak, 35 diferentzia salbu,⁸ aipatu dokumentuan zenbait ordain-kontzeptuk okerreko isla izatearen ondoriozkoak.

- Horrez gain, urtean zehar irakas-meritu indibidualengatiko osagarri gisa jasotakoaren lagin bat fiskalizatu dugu. Eginiko berrikuspenetik ondoriozta dezakegu ezen jarraitutako prozedura eta horren ordainketa behar bezalakoak izan direla.

⁷ Mailako soldata, bateraezintasun-osagarria, lanpostu-osagarria, maila-osagarria, arduraldi eskusiboa, zuzendaritza-lanpostuko osagarria, bosturtekoa eta arriskugarritasun-osagarria.

⁸ Pertsona bat oinarritzko soldatan, bat bateraezintasun-osagarrian, lau maila-osagarrian, eta 29, lanpostu-osagarrian.

Gure laneko konklusioak aintzat harturik, gomendatzen dugu:

- *Aurrekontuan eranskin bat txertatzea, berritik proposatzen diren postuak jasoko dituen, araudian ezarritakoaren arabera.*
- *Araudiak irakaskuntza- eta ikerkuntza-langile kontratatuak direla-eta ezarritako portzentajeak betetzea. Horretarako konputua eginen da irakasle eta ikertzaile diren langileen guztizkoaren gaineko lanaldi osoko baliokidetasunen bidez, bai eta aldi baterako lan-kontratua duten irakaskuntza- eta ikerkuntza-langileek irakasle-plantillaren gainean zenbatekoa egiten duten aintzat hartuz.*
- *Plantillako ordain-kontzeptu jakin batzuetan aurkituriko okerrak zuzentzea.*
- *Langileriarekin zerikusia duten prozedura guztietan eginiko urratsak behar bezala adierazita uztea.*

4.4. ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO GASTU ARRUNTAK

2022ko ekitaldiko ondasun eta zerbitzuengatikoko gastu arruntak 17,49 milioikoak izan ziren, eta Unibertsitatearen gastu guztien ehuneko 18 egiten dute. Betetze-maila ehuneko 69koa izan zen, eta ekitaldiaren itxieran gastu horien ehuneko 86 zeuden ordainduta.

Honako hau da artikuluko ekonomikoen arabera gastua eta haren eta aurreko ekitaldikoaren arteko alderaketa:

Artikulua	(milakotan)		
	Aitortutako betebeharrak, 2021*	Aitortutako betebeharrak, 2022	Aldea (%) 2022-2021
Errentamenduak	87	88	2
Konponketa eta kontserbazioa	2.894	3.097	7
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	11.589	13.474	16
Zerbitzua dela-eta emaniko kalte-ordaina	288	524	82
Argitalpenak editatu eta banatzea	33	26	-20
Unibertsitateekiko akordioak, nazioarteko programak eta beste	422	283	-33
Guztira	15.313	17.493	14

*Auditatu gabeko ekitaldia.

2021eko ekitaldiarekin alderatuta, gastu horiek ehuneko 14 egin zuten gora; hots, 2,19 milioi. Zenbakitan, gorakadarik handiena material eta horniduren kontzeptuan ikusten da; funtsean, argindarrean eta gasean izandako gastuaren areagotzearen ondorioz (839.467 euro eta 483.182 euro, hurrenez hurren).

2022an, NUPeko Kontu-hartze Zerbitzuak auditoretza-txosten bat egin zuen, NUPen ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten eta inbertsio errealen alorraren kudeaketa ezagutzeko eta ebaluatzeko, prozeduraren ikuspegitik eta ikuspegi ekonomikotik ere. Txostenaren konklusio nagusia zera izan zen, kontratazio publikoko prozesuak oro har kasuko araudia beterik egiten zirela. Hala-ber, txostenak zioenez, espedienteek, oro har, kasuko dokumentazio guztia jasotzen dute; kasuan kasuko organo eskudunak onetsita daude; eta, behin abiatuta daudenean, izapidetze-epeak errespetatu egiten dira.

Kontratazio-espedienteen lagin baten azterketa

NUPk eta haren fundazioak 2022an izapidetutako kontratazio-espediente hauek fiskalizatu ditugu:

Kontratua	Mota	Adjudikazio-prozedura	Adjudikazio-aren zenbatekoa	Adjudikazio-aren baja (%)
Ekitaldietarako erakustokiak eta ekipamendu osagarria alokatu, muntatu eta desmuntatzea (Unibertsitatea-Gizartea Fundazioak adjudikatua)	Zerbitzuak	Irekia	42.750	5
Nafarroako Unibertsitate Publikoaren bidaia-agentzia zerbitzua	Zerbitzuak	Irekia	400.000	-
NUPeko ekipamendu mikroinformatikoaren mantentzea	Zerbitzuak	Irekia	80.590	11
Administrazio elektronikoko plataforma baten eta haren mantentze-zerbitzuaren ezarpen eta hedapena	Zerbitzuak	Irekia	270.000	10
Nafarroako Unibertsitate Publikoko Osasun Zientzien Fakultatearen eraikina egiteko proiektuaren moldaketa	Zerbitzuak	Lizitazio deialdirik gabeko prozedura negoziatua	170.850	-
Arrosadiko campuserako autokontsumo-instalazio fotovoltaiko baterako proiektua idaztea, obra-zuzendaritzaz arduratzea eta ziurtapen energetikoa egitea	Zerbitzuak	Irekia	103.400	23

Aipatutako kontratazio-espedienteak berrikusita, ondorioztatzen dugu ezen, oro har, aplikatzen den araudiaren arabera izapidetu zirela. Halere, honako zertzelada hauek adierazi behar ditugu:

- Bidaia-agentzia zerbitzuaren esleipenaren kasuan, NUPek gaizki aplikatu zuen eskaintza ekonomikoaren puntuazioa lortzeko formula. Nolanahi ere, zuzen aplikatuz gero ere ez zen bestelako emaitzarik lortuko.

Bestalde, prestazio honi buruzko kontratua 2022ko irailaren hasiera-partean sinatu zen, eta baldintza jakin batzuk ezarri zituen kontrataturiko zerbitzu desberdinetako komisio eta deskontuen inguruan. Ikusi dugunez, 2022ko irailetik abendura bitarteko faktura-lagin batean, baldintza horiek ez ziren aplikatu, eta lehenagotik zirenak erabili ziren, zeinak kasu batzuetan mesedegarri baitzizkion NUPi, eta beste batzuetan ez.

- Bost espedientetan, pleguek eskaintza ekonomikoaren balioespenerako aurreikusitako formulak ez zuten linealki saritzen beherapenak aurkezteko ahalegin ekonomikoa, halako moldez non, batzuetan, puntuazioa ematen baitzien are lizitazio-prezioarekiko beherapenik aurkezten ez zuten eskaintzei ere. Horren ondorioz, suertatzen zen puntu-banaketarekin, puntuen ehuneko 50 ez zen ematen formula objektiboei jarraituz.

- Bi espedienteren pleguek ez zuten aipatzen eskaintza bat anormalki baxutzat jotzeko irizpiderik.

- Ez da ageri nola zehaztu zen instalazio fotovoltaikoaren proiektua idazteko esleipena arautzen duten pleguen kontratuaren prezioa.

Gastu-lagin baten azterketa

Honako gastu hauek aztertu ditugu:

	Gastua, 2021	Gastua, 2022	Aldaketa (%) 2022-2021
Ikerketa- eta segurtasun-zerbitzua	647.875	647.176	-0,1
Aseguru-primak	196.103	326.838	66

Eginiko analisitik ondoriozta dezakegu gastu horiek baimenduta daudela, kontu-hartzaitzatik pasata, justifikatuta, behar bezala kontabilizatuta eta epe barruan ordainduta. Dena den, honako hau aipatu behar dugu:

- Primetan eta seguruetan eginiko gastuaren gorakadaren arrazoia izan zen kontratu-aldaketa bat izapidetu izana, 2023ko urtarrila-abuztua epeko gastua 2022ko aurrekontuaren kargura ordaintze aldera. 2023ko gastuak finantzatu ziren txosten honen 4.1 epigrafean aztertutako kreditu-gehigarriari esker.

- 2022ko irailean, NUPEk erabaki zuen, kautelazko administrazio-neurri gisa, ikerketa- eta segurtasun-zerbitzuaren esleipena zeukan enpresari zor zitzaizkion 2022ko abuztuko kopuruen ordainketa atxikitzea, langileen soldata-ordainketan martxoaz geroztik izandako atzerapenengatik eta abuztukoak ez zirelako ordaindu. Horrez gain, NUPEk enpresari jakinarazi zion kontratua ez luzatzea erabaki zela.

2022ko urrian, NUPEk esleipen-hartzaileari errekeritu zion iraileko soldaten eta Gizarte Segurantzaren ordainketa justifika zezala. Esleipen-hartzaileak, baina ez zuen halakorik aurkeztu. Hila-bete horretan, gainera, kontratuaren kudeatze-unitateak txosten bat jaulki zuen, non zehazten baitziren zerbitzu-ematearen akatsak eta nominen atzerapena eta ez-ordaintzea.

2022ko azaroaren hasieran, NUPEk hasiera eman zion kontratu-urraketagatik zigor-ezarpenerako espedienteari, kontratistari entzutea emanez. Azken horrek ez zuen alegaziorik aurkeztu. Hilabete horren bukaeran, NUPEk zehapen arinak ezarri zituen, irmoak, kontratu-exekuzioaren urraketa partzialagatik (6.847 euro), bai eta oso larriak ere, soldatak atzerapenez ordaintzeagatik eta ez ordaintzeagatik (41.081 euro).

Azaroan kontratu berri bat lizitatu zen, baina eman gabe geratu zen. Horregatik, abenduan, lehenagoko esleipen-hartzaileari betebeharrak gisa ezarri zitzaion zerbitzua ematen jarraitzea 2023ko urtarrilaren 1etik lizitazio berriaren esleipenera bitartean.

2022ko abenduaren bukaera-partean, NUPEk erabaki zuen esleipen-hartzaileak emandako zerbitzuari zegozkion kopuruak atxikitzea harik eta hark justifikatu arte langileei soldatak ordaindu zizkiela. Horrez gain, egun haietan lizitazio berri bat egin zen, deialdirik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez, zeina 2023ko urtarrilaren bukaera aldera esleitu baitzen.

Txosten honen idazte-garaian, 2022ko abuztu, irail eta urriko fakturak, azaro eta abendurako estimazioak eta kasuko fidantzek atxikita zirauten (247.273 euro, BEZa kanpo). Enpresako langileek enpresen eta NUPen aurkako salaketa jarri dute auzitegietan.

Egindako lanaren konklusioak ikusirik, hauexek dira gure aholkuak:

- *Eskaintza ekonomikoak puntuatzeko formulak taxutzea, halakoak non haiek linealki eta proportzionalki puntuatuko baitituzte.*

- *Esleipenak antolatzen dituzten pleguetan jasotzea zer irizpideren arabera joko den eskaintza bat anormalki baxua dela.*

- *Kalkulatzea zenbateko aldea dagoen bidaia-agentziako zerbitzua kontratatu aurreko baldintzak aplikatzearen eta 2022ko irailean kontrataturiko berriak erabiltzearen artean, irailetik abendura bitarteko epean; eta, kasua bada, suertatzen diren kopuruen itzulketa eskatzea.*

- *Lizitazio-espedientearen justifikatzea kontratuaren prezioa ezartzeko er prozedurari heldu zaion.*

4.5 TRANSFERENTZIA ARRUNTAK

Transferentzia arruntak 2,32 milioi eurokoak izan dira, eta ehuneko 69ko betetze-maila izan dute. Kapitulu honetako gastua eta 2021eko urtean izandakoarekiko alderaketa honako hau da:

Kontzeptua	(milakotan)		
	Aitortutako betebeharrak, 2021*	Aitortutako betebeharrak, 2022	Aldea (%) 2022-2021
Ikasleentzako bekak eta laguntzak	1.371	1.536	12
III. eta ALZentzako bekak eta laguntzak	96	408	325
Irabazi asmorik ez duten erakundeentzako transferentziak	371	355	-4
Elkarte eta beste ordezkari batzuentzako laguntzak	18	18	-
Guztira	1.856	2.318	25

*Auditatu gabeko ekitaldia.

Gastu honek ehuneko 25eko igoera izan zuen 2021etik; gehienbat, COVID-19aren pandemiaren ondoko birnormaltzetik aurrera ikasle nahiz langileen mugimen-gastuek izandako gorakada zela-eta.

Irabazi asmorik gabeko erakundeentzako transferentzien barruan, Unibertsitatea-Gizartea Fundazioari egindakoa ageri da, 200.000 milioikoa. Kopuru hori, emandako mandatuaren barruan, Hitz-kuntzen Goi-mailako Ikastegiaren jardueretara, Alumni Programara eta beste jarduera batzuetara bideratzen da.

2022an baimendutako transferentzia arruntetatik berrikusi dugun lagina honako hau da:

Kontzeptua	Gastua, 2021*	Gastua, 2022	Aldea (%) 2022-2021
ikasleentzako mugimen-bekak eta -laguntzak. (Erasmus-sez bestelakoak)	83.088	162.465	96
Atzerriko ikerketa-zentroetan egonaldiak egiteko laguntzak	66.190	334.913	406

*Auditatu gabeko ekitaldia.

Egiaztatu da ezen, orokorrean, berrikusitako gastuak zuzen baimenduta, kontu-hartzaileak ikusita, justifikatuta eta kontabilizatuta daudela, eta horien onespina, justifikazioa eta ordainketa egin zela horiei buruzko araudiak ezarritakoari jarraituz. Halere, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Berrikusitako laguntzen parte bat banku batek finantzatua da, onuradunen hautaketa NUPek egiten badu ere. NUPen eta banku horren arteko hitzarmenak ez zuten aurreikusten nola jokatu behar zen, balizko onuradunen puntuazioetan berdintasunik suertatuz gero. Kasu horiek ebazteko modua azaltzen du, bai, NUPek, laguntza-tankera honi aplikatzekoak zaizkion arautze-oinarri orokor batzuetan; zehazki, oinarri hauek xedatzen dute ezen, puntuazio-berdinketako kasuetan, hori ebazteko dela unibertsitatean sartzeko nota aintzat hartuz.

Ikusi dugu bi pertsonaren artean berdinketa bat egon zela, hurrenkera alfabetikoaren arabera ebazitakoa, besterik ezartzen bazuten ere berrikusitako laguntzari aplikatzekoak zaizkion arautze-oinarri orokorrek.

- Erasmus-sez bestelako beken hartzaile suertatu ziren pertsonetako batzuek horiei uko egin zieten. Partida horretan horrela soberatutako kreditua, NUPek erabaki zuen aurreko puntuan aipatu banku-entitateari beka eskatu eta halakorik lortu ez zuten ikasleei helaraztea.

Egiaztatu dugu laguntza hori jaso zuten lau pertsonak jasota zeukatela, alabaina, banku-entitatearen beka. NUPek jadanik hasi du horrelakoetarako itzulketa-espeditentea, guztira 2.522 euro egiten duena.

Egindako lana kontuan harturik, gomendatzen dugu banku-entitatearekiko hitzarmenean jasota uztea zer prozedura den aplikatzekoa balizko onuradunen arteko berdinketako kasuetan; edo, halakorik ezean, laguntza hauei aplikatzekoak zaizkien NUPeko oinarri orokorrak aplikatzea.

4.6. INBERTSIOAK

2022ko inbertsioak 9,24 milioikoak izan dira —aitortutako betebeharrak guztien ehuneko bederatzia—, eta betetze-mailak ehuneko 93ko portzentajea iritsi du. Honako hau da kontzeptu ekonomikoaren arabera gastua eta haren eta 2021eko ekitaldikoaren arteko alderaketa:

Kontzeptua	(milakotan)		
	Aitortutako betebeharrak, 2021*	Aitortutako betebeharrak, 2022	Aldea (%) 2022-2021
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	1.140	2.090	83
Makinak, instalazioak eta tresnak	237	471	99
Altzariak eta tresneria	149	209	41
Informazio prozesuetarako ekipamenduak	132	466	253
Berariazko programetarako inbertsio-funtsak	2.052	1.552	-24
Funts bibliografikoak	1.765	2.889	64
Ikerketa-proiektuetan eta -kontratuetan egindako inbertsioak	708	1.534	117
Patenteak	11	18	68
Aplikazio informatikoak	50	10	-81
Guztira	6.244	9.239	48

*Auditatu gabeko ekitaldia.

Inbertsio nagusiak honako kontzeptu hauei dagozkie: ehuneko 31, funts bibliografikoei⁹; ehuneko 23, etxe eta bestelako eraikinei; eta ehuneko 17, bai berariazko programetako inbertsioetarako funtsei, bai ikerketa-proiektu eta -kontratuetakoko inbertsioei.

4.4 epigrafean aipaturiko NUPeko Kontu-hartze Zerbitzuaren txostenak kontratazioari buruz jasotako konklusioak orobat dira kapitulu honetako kontratazioari buruzkoak.

Kontratazio-espedienteen lagin baten berrikuspena

2022ko espedienteen honako lagin hau berrikusi dugu:

Kontratua	Mota	Esleitzeko prozedura	Adjud. zenbatekoa	Esleipenaren beherapen %
6. Modularen fatxada, Sario Eraikinean	Obrak	Irekia	1.283.089	0,2
Sarioko 6. modularen sotoa egokitzea, areto garbi bat eraikitze aldera	Obrak	Sinplifikatua	179.976	0,3
FIB-SEM ekipo bat erostea Mikro eta Nanofabrikazioko laborategi berrirako.	Hornikuntza	Irekia	998.000	-
Bi ontzidun flash izozketako goi-presioko ekipoa erostea	Hornidura	Irekia	748.800	5
Hogeita hamaika ordenagailu erostea Garapen Digitaleko errektoreordetzaren errealitate birtualeko ikasgela berrirako	Hornidura	Sinplifikatua	30.045	22
Metalezko apalategi trinkogarriak erosi eta instalatzea, liburutegirako	Hornidura	Irekia	65.910	11
Metalezko apalategi mugigarri trinkoak erosi eta instalatzea, artxibo orokorrerako	Hornidura	Irekia	52.474	19

⁹ 2022an, 1,22 milioi egiten zuten 2023ko gastuak aurreratu dira. Eragiketa hori posible izan zen Gizarte Kontseiluak 1,60 milioiko kreditu-gehigarri bat onestearen ondorioz.

Aipatutako kontratazio-espeditenteak berrikusita, ondorioztatzen dugu ezen, oro har, aplikatze-koa den araudiaren arabera izapidetu zirela; halere, honako hau aipatu behar dugu:

- Berrikusitako espeditente guztietan, esleipen-irizpideen baloraziorako erabilitako formulak ez du linealki saritzen lizitatzailen ahalegin ekonomikoa, beherapenik aurkezten ez duten eskaintzei puntuazioa eman baitzaie, halako moldez non, suertaturiko puntu-banaketan, puntuen ehuneko 50 ez baita esleitzen formula objektiboen arabera, araudiak ezartzen duenaren kontra.
- Berrikusitako lau espeditentetan, esleipena antolatzen zuten pleguetan ez zen jasotzen zer irizpideren arabera joko den eskaintza bat anormalki baxua dela.

Gastu-lagin baten berrikuspena

2022an egindako gastu hauek berrikusi ditugu:

Kontzeptua	Gastua, 2021*	Gastua, 2022	Aldea (%) 2022-2021
Elsevier argitaletxearekiko harpidetza berritzea	421.519	645.497	53
Lan-aulkiak eta ikasgeletarakoak erostea	34.988	93.003	166

*Auditatu gabeko ekitaldia.

Eginiko analisitik ondoriozta dezakegu gastu horiek baimenduta daudela, kontu-hartzailatzatik pasata, justifikatuta, behar bezala kontabilizatuta eta epe barruan ordainduta. Dena den, honako hau aipatu behar dugu:

- Elsevier argitaletxearekiko harpidetza berritzeko gastuaren gehikuntzaren arrazoa da kontratu-aldaketa bat izapidetu zela, 2023ko gastua 2022ko aurrekontutik ordaintze aldera, txosten honen 4.1 epigrafean azaldu denez izapidetu zen gehigarriarengatik zegoen kredituaren kargura.
- Aulki-erosketako gastuaren gorakada ere aipatu kreditu-gehiarriarekin ordaindu zen, nahiz eta, kasu honetan, kontratuak aulki bakoitzeko zenbatekoa baino ez zuen ezartzen, eta NUP ez zuen behartzen urte bakoitzeko aulki-kopuru jakin bat erostera. Horregatik, ezin zehaztuzkoa zaigu zenbatekoaren zein zati dagokion 2023ko ekitaldiko gastuari.

Egin dugun lanaren konklusioak kontuan hartuta, hona gure gomendioak:

- *Eskaintza ekonomikoak puntuatzeko formulak halako moldez taxutzea non haztapenez aintzatetsiko baituzte balizko lizitatzailerek aurkezten dituzten beherapenak.*
- *Esleipenak antolatzen dituzten pleguetan jasotzea zer irizpideren arabera joko den eskaintza bat anormalki baxua dela.*

4.7 IKERKETA-KONTRATUEN ETA -PROIEKTUEN KUDEAKETA

NUPen Europaren, Estatuaren eta Nafarroako Gobernuaren finantzaketa duten ikerketa-proiektuak egiten dira. Gainera, NUPek zilegi du kontratuak egitea pertsona edo entitateekin, lan zientifiko, tekniko edo artistikoak egiteko, edo berariazko prestakuntza-jarduerak egiteko, Unibertsitateen Lege Organikoaren 83. artikulua eta Unibertsitateko Estatutuen 183. artikuluen babesean (Ikerketen Emaizak Transferitzeko Bulegoaren kontratuak). Kontratu horiek nahitaez bete behar dute Kontratazio-araudia, Nafarroako Unibertsitate Publikoan izaera zientifiko, tekniko edo artistikoa daukaten lanak egiteko eta berezitasuneko ikasketak edo prestakuntza-jardura berariazkoak garatzeko, Gobernu Kontseiluak 2008ko urtarrilaren 29ko erabakiaren bidez onetsia.

2022an, ikerketa-proiektu eta -kontratuak egitetik heldu diren gastuak 10,13 milioikoak izan dira, jarraian zehaztu bezala:

Ikerketa-proiektu eta -kontratuak	(milakotan)	
	Kopurua	%
Langileria-gastuak	6.424	63
Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	2.656	26
Transferentzia arruntak	227	2
Inbertsio errealak	819	8
Gastuak, guztira	10.127	100

2022a baino lehenagoko urteetan hasitakoak diren¹⁰ zazpi ikerketa-kontratuz osaturiko lagin hau berrikusi dugu:

	Kontratuko gastuak, 2022				kontratuko diru-sarrerak, 2022 (BEZa kanpo)		
	Langileak	Material suntsikorra / zerbitzuak	Inbertsioak	Gastuak, guztira	Kanpo-finantzaketa		
					Funts erabilgarriak	Zeharkako kostuak	Diru-sarrerak, guztira
1. kontratua	80.531	1.216	-	81.747	60.513	10.287	70.800
2. kontratua	4.829	6.950	-	11.779	32.375	5.504	37.879
3. kontratua	14.808	2.100	-	16.908	Beren osotasunean 2021ean jasoak		
4. kontratua	9.615	2.360	-	11.975	6.838	1162	8.000
5. kontratua	600	4.150	-	4.750	Beren osotasunean 2021ean jasoak		
6. kontratua	5.999	3.000	-	8.999	12.821	2.179	15.000
7. kontratua	-	1.014	12.650	13.664	16.357	2.781	19.138
Guztira	116.382	20.790	12.650	149.822	128.904	21.913	150.817

Kanpo-finantzaketa da NUPEk jasotakoa, zeinetatik ehuneko 17 atxikitzen baitu, zeharkako kostuen kontzeptuan. Gainerakoa osatzen dute ikertzaille diren langileek kasuko kontratua aurrera eramateko funts erabilgarriek.

Egindako lanetik, ondoriozta dezakegu ezen, oro har, gastuak eta diru-sarrerak ondo kudeatu direla kontabilitate- eta aurrekontu-ikuspegietatik, eta langile-hautaketa araudia betez egin dela. Alta, honako zertzelada hauek aipagarritzat jotzen ditugu:

- Kontratu horien kargura eginiko gastuek zerikusia izan behar dute finantzatzen den jarduerarekin. Egiaztatu dugu ezen, kasu batean, kongresuetara joateagatiko 2.360 euroko gastu aurkeztuek ez dutela zerikusirik kontratuaren helburuarekin, zerikusi hori badaukaten arren jarduera gauzatu zuen taldearen ikerlerroekin.

- Aipatu kontratazio-arauegiak xedatzen du kontratuak erraztuak izan ahalko direla baldin ez badira zenbateko jakin batera iristen eta haien iraupena ez bada hiru hilabete baino luzeagoa. Kasu horietan, ez da beharrezkoa izanen kontratuaren aurrekontu xehakaturik. Gainerako kontratuetan, ordea, bai. Berrikusitako hiru kontratutan, zeinen kudeaketa-prozedura ez baitzen erraztua izan, ez da agertzen aurrekontu xehakaturik.

Gure konklusioen argitan, hona gure gomendioak:

- *Aipatu arau-tegiak dioenez prozedura erraztuaren araberakoak ez diren Ikerketen Emaitzak Transferitzeko Bulegoaren kontratuen espedientean aurrekontu xehakatu bat sartzea, lagungarri izanen dena kontratu horien gardentasun eta kontrolerako.*

- *Ikerketen Emaitzak Transferitzeko Bulegoaren kontratuen xedearekin zuzeneko zerikusirik ez duten gastuak finantzatzea kasuko ikerketa-taldearen poltsaren kargura.*

¹⁰ 2019ko apirilean, Kontu-hartzaitza Zerbitzuak ikerketa-proiektuen auditoretza bat burutu zuen, emaitza egokia lortuta, eta egindako hamar gomendioen segimendua ere egin zuen, zeinetatik zazpi jada obratuta baitzeuden. Hori dela-eta, gure laginean ez dugu proiekturik sartu.

4.8 TASAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTE DIRU-SARRERA BATZUK

Tasak, prezio publikoak eta aitortutako bestelako diru-sarrera garbiak 16,66 milioikoak izan dira 2022. urtean; eta diru-bilketaren portzentajea, ehuneko 96koa. Ekitaldiko eskubide guztien ehuneko 14 egiten dute, eta honako kontzeptu hauei dagozkie:

(milakotan)			
Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	Eskubide aitortuak 2021*	Eskubide aitortuak 2022	Aldea (%) 2022-2021
Tasak	1.323	1.354	2
Prezio publikoak	11.226	11.723	4
Zerbitzu-emateagatik beste diru-sarrera batzuk	3.340	3.319	-0,6
Ondasunak saltzea	13	21	62
Itzulketak	42	24	-43
Beste diru-sarrera batzuk	103	215	109
Guztira	16.046	16.656	4

*Auditatu gabeko ekitaldia.

Aurreko urtearen aldean, diru-sarrera horiek ehuneko lauko gorakada izan zuten (0,61 milioi), batez ere prezio publikoen gehikuntzarengatik eta, zehazkiago, ikasle-matrikulen ordainketarako salbuespenengatik Nafarroako Gobernuarengandik jasotako diru-sarreraren areagotzeagatik, ehuneko 51 egin baitute gora (0,29 milioi).

2022ko prezio publikoak 11,72 milioikoak izan dira, eta kapituluko diru-sarrera guztien ehuneko 70 egiten dute. Hona hemen xehetasunak:

(milakotan)	
Prezio publikoak 2022	Zenbatekoa
Matrikula eskubideak Titulazio ofizialak	10.903
Matrikula eskubideak Arautu gabeko irakaskuntzak	318
Kirol jarduerak direla eta	217
Lokal eta instalazioen erabilpena	255
Beste prezio publiko batzuk	32
Prezio publikoak, guztira	11.725

Titulazio ofizialen barruan, ziklo, gradu, doktoretza eta master ikasketen matrikulak jasotzen dira; arautu gabeko irakaskuntzetan, berriz, funtsean titulu berekietako, Esperientziaren Gelako eta Hizkuntzen Goi-mailako Ikastegiko eskubideak sartzen dira.

Tasa eta prezio publikoei dagokienez, honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

- NUPek aplikatzen dituen prezio publikoen kopuru urtekaria honela finkatzen da:

a) Ikasketa ofizialen kasuan, Nafarroako Gobernuak ezartzen du. 2022/2023 ikasturterako, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren 42E/2022 Foru Aginduaren bitartez. Foru agindu horretan bigarren murrizketa bat proposatzen da gradu-ikasketetako lehen matrikularen kredituaren ehuneko 2,38koa, 2019-2020 ikasturtean zeuden prezio indardunekiko.

b) Irakaskuntza berekien eta beste prezio publiko batzuen kasuan, arau orokor gisa Gizarte Kontseiluaren erabakiz ezartzen dira. Horrela, ekainean, Gizarte Kontseiluaren 2021eko ekaineko erabakiz, prezio publikoak onetsi ziren ikasketa berekietarako, A3U programako kuotetarako¹¹, kirol-jarduerak eta instalazioetarako, "Nirelkasgelategia" zerbitzurako¹² eta Hizkuntzen Goi Mailako Ikastegirako.

¹¹ Nafarroako Unibertsitate Publikoko lagunen eta antzinako ikasleen Alumni elkarte.

¹² Nafarroako Unibertsitate Publikoaren plataforma birtuala.

Gradu eta master ikasketen 2022/2023 ikasturterako matrikula-prezioak¹³ honakoak izan ziren:

	Giza eta Gizarte Zientziak	Zientziak, ingeniari-tzak eta osasun zientziak	Lanbide erregulatueta-rako gaikuntza ematen duten masterrak	Lanbide erregulatu-etarako gaikuntzarik ematen ez duten masterrak
1. matrikula	15,10 €/kreditua	21,38 €/kreditua	21,38 €/kreditua	28,35 €/kreditua
2. matrikula	32,50 €/kreditua	46,10 €/kreditua	34 €/kreditua	
3. matrikula	70,50 €/kreditua	99,95 €/kreditua	73,65 €/kreditua	73,65 €/kreditua
4. matrikula eta ondo-rengoak	97,65 €/kreditua	138,25 €/kreditua	102 €/kreditua	

Matrikulan, prezio akademikoez gain, prezio administratiboak ordaindu beharra dago: 41,15 euro, administrazio-kudeaketako gastuengatik, eta 31,25 euro, lehenbiziko urtean espedientea irekitzeagatik.

- Matrikulen kontabilitate- eta aurrekontu-erregistratzea kutxa-irizpidearen arabera egiten da, beste diru-sarrera partida batzuetan bezalaxe. Irizpide hori erabiltzeak murriztu egiten ditu esku-bide kontabilizatuak eta, beraz, kobrakizun daudenak, eta, horrekin, diruzaintza-gerakin atxikigabea. Ezin izan dugu kalkulatu, ordea, zein zenbatekoko murrizketa den.

- Oroitidazkian jasotako informazioaren arabera, matrikula-kontzeptuan 2022ko abenduaren 31n kobrakizun zeuden eskubideen zenbatekoa honako hau da:

Kobrakizun dauden matrikula-eskubideak	2017-2018 ikasturtea	2018-2019 ikasturtea	2019-20 ikasturtea	2020-21 ikasturtea	2021-22 ikasturtea	Guztira
Graduko matrikulak	95.972	69.097	73.196	80.966	119.002	438.233
Masterreko matrikulak	4.753	20.688	11.556	12.658	25.573	75.227
Berankortasunaren zenbatekoa, guztira	100.725	89.785	84.752	93.624	144.575	513.460
Zordun kopurua	209	185	173	195	296	1.058

513.460 euroko matrikula-zenbatekoa zegoen kobrakizun, eta 1.058 ziren horren zordunak. Zorraren ehuneko 28 2021/2022 ikasturtekoa da, eta ehuneko 20, 2017/2018 ikasturtekoa. Ehuneko 85 gradu-matrikuletatik dator, eta gainerako ehuneko 15, master-matrikuletatik.

Diru-sarreraren lagin baten berrikuspena

2022an aitorturiko diru-sarrera hauek berrikusi ditugu:

Kontzeptua	Diru-sarrerak (2021)*	Diru-sarrerak (2022)	Aldea (%) 2022/2021
Administrazio-izapideengatiko diru-sarrerak	951.465	900.623	-5
Kirol-instalazioen erabileragatiko diru-sarrerak	101.085	179.288	77

*Auditatu gabeko ekitaldia.

Egindako berrikuspenetik ondoriozta dezakegu ezen, orokorrean, prozedurak, likidazioa eta diru-bilketa egin zirela haiei buruzko araubidea betez; nolana ere, aipatu beharrekoa da ezen administrazio-izapideengatiko diru-sarreraren kasuan kutxa-irizpidea dela diru-sarrerak kontabilizatzeko erabiltakoa, eta ez sortzapen-irizpidea.

Iritsitako konklusioak aintzat harturik, gomendatzen dugu kontabilizazioko sortzapen-irizpidea erabil dadila diru-sarrerak erregistratzeko.

¹³ Matrikularen zenbatekoa kalkulatzeko, ikasgaien kredituak bider kreditu bakoitzaren prezioa eragiketa egin beharra dago.

4.9 TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIENGATIKO DIRU-SARRERAK

2022an, transferentzia arrunt eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak 91,78 eta 8,65 milioioak izan dira, hurrenez hurren. Diru-sarrera horiek NUPen finantzaketa-iturri nagusia dira, eta guztizko diru-sarreraren ehuneko 86 egiten dute. Hona horien xehekako azalpena:

(milakotan)			
Transferentzia arruntak	Aitortutako eskubi-deak, 2021	Aitortutako eskubi-deak, 2022	Aldea (%) 2022/2021
Nafarroako Gobernuarekiko finantzaketarako hitzarmena	72.250	76.365	6
Ikerketa	11.244	14.081	25
Nazioarteko mugimena	1.082	594	-45
Unibertsitate-hedadura	60	151	152
Bestelako jarduerak	30	10	-67
Beste batzuk	749	583	-22
Transferentzia arruntak, guztira	84.415	91.784	9
Nafarroako Gobernuarekiko finantzaketa-hitzarmena	600	1.000	67
Nafarroako Gobernuak finantzatutako beste inbertsio batzuk	2.719	7.646	181
Kapital-transferentziak, guztira	3.319	8.646	161

*Auditatu gabeko ekitaldia.

2021. urtearekin alderatuta, transferentzia arruntek ehuneko bederatziko gorakada izan dute; hots, 7,37 milioioa. Horren arrazoi nagusia izan da Nafarroako Gobernuarekiko urte anitzeko finantzaketa-hitzarmenetik heldutako diru-sarreraren gorakada. Kapital-transferentziek ehuneko 161eko igoera izan dute, 2022an Nafarroako Gobernuarengandik lau milioi jasotzeagatik Sarioko Berrikuntza Digitalerako Gunearen eraikuntza finantzatzeko, eta 3,10 milioi, NUPen eguzki-plakak jartzeko.

NUPen eta Nafarroako Gobernuaren arteko finantzaketa-hitzarmena

2022an, Nafarroako Gobernuarekiko finantzaketa-hitzarmenetik datozen diru-sarrerak 77,37 milioioak izan dira, eta ekitaldiko diru-sarrera guztien ehuneko 66 egiten dute. 2022ko abenduaren 31n, Nafarroako Gobernuak milioi bat zeukan NUPi ordainkizun. Diru hori 2023ko urtarrilean ko-bratu zen.

NUPek 2018-2022 aldian jasotako eta hiru aurrekontu-partidatan erregistraturiko diru-sarrek bilakaera hau izan zuten:

(milakotan)							
Finantziazioa	2018	2019	2020	2021	2022	Aldea (%) 2022/2018	Aldea (%) 2022/2021
Egituraren eta jardueraren finantzi-azioa	56.337	60.710	66.284	70.381	74.965	33	7
Hobekuntzak (helburukako finantzi-azioa)	584	1.112	1.369	1.369	1.400	140	2
Inbertsio espezifikoak	777	664	1.011	600	1.000	29	67
Finantzaketarako hitzarmena, guztira	57.698	62.485	68.664	72.350	77.365	34	7

Finantziazioak ehuneko 34ko igoera izan du 2018-2022 epean. 2021ekiko igoera-portzentaje hori ehuneko zazpikoa izan da 2022an. Bi hitzarmen desberdinek ematen diote oinarri dirusarrera horiek jasotzeari: 2018-2020 eperako ezarritakoak (2021era luzatu zen) eta 2022-2024 epealdira-koak.

Diru-sarreraren lagin baten berrikuspena

2022an aitorturiko diru-sarrera hauek berrikusi ditugu:

Kontzeptua	Diru-sarrerak (2021)*	Diru-sarrerak (2022)	Aldea (%) 2022/2021
Erasmus+ programako diru-sarrerak	23.120	126.302	446
Ikasleen eta langileen mugimen-programako diru-sarrerak	688.425	415.432	-40

*Auditatu gabeko ekitaldia.

Egiaztatu ditugu dirulaguntzaren helburua, aplikatu den kontabilitate-erregistro irizpidea, aurkezturiko justifikazioak eta nolako kontrola egin den jasotako funtsen aplikazio egokia bermatzeko. Moduzkoa izan da horren emaitza, salbu eta ikasle eta langileen mugimen-programarako lorturiko diru-sarreren kontabilizazioari dagokionez, horretan ez baita sortzapen-irizpidea aplikatzen.

4.10. EPE LABURREKO ZORDUNAK ETA HARTZEKODUNAK

Epe laburreko zordunak

2022ko abenduaren 31ko zordun-saldoa 3,23 milioikoa zen (barne harturik matrikulak ez ordaintzeagatiko zorretakoak, lehenago aipatuak), eta honela sailkatzen da:

Zordunak	2021/12/31	2022/12/31	Aldea (%) 2022/2021
Aurrekontu-zordunak	2.173	2.567	18
Aurrekontukoak ez diren zordunak	192	173	-10
Administrazio publikoak	624	1.106	77
Hornidurak	(1.583)	(621)	-61
Zordunak, guztira	1.405	3.225	130

Zordunen ehuneko 80 aurrekontukoak dira (ehuneko 73, 2022ko aurrekontukoak), eta ehuneko 34 dira administrazio publikoekiko zorretakoak.

Zuzkiduren saldoa, 0,62 milioi, nabarmen murriztu zen, proiektuetarako aurrerakinak kontabilizatzeko sisteman izandako aldaketa baten ondorioz.

2021ekin alderatuta, saldoa ehuneko 130 igo zen (1,82 milioi), administrazio publikoen zorren ehuneko 77ko gorakadarengatik (0,48 milioi) eta aurrekontu-zordunen zorren ehuneko 18ko gorakadarengatik (0,39 milioi).

Epe laburreko hartzekodunak

2022ko abenduaren 31n, hartzekodunen saldoa 9,33 milioikoa zen, eta honako hauei zegokien:

Hartzekodunak	2021/12/31	2022/12/31	Aldea (%) 2022/2021
Aurrekontuko hartzekodunak	2.768	5.685	105
Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak	165	567	244
Administrazio publikoak	2.737	2.995	9
Jasotako epe laburreko fidantza eta gordailuak	78	81	4
Hartzekodunak, guztira	5.749	9.328	62

Hartzekodunen ehuneko 61 aurrekontukoak dira (ehuneko 99, 2022ko aurrekontukoak), eta ehuneko 32 dira administrazio publikoekiko zorretakoak.

2021ekin alderatuta, saldoa ehuneko 62 igo zen (3,58 milioi), aurrekontuko hartzekodunen ehuneko 105eko gorakadarengatik (2,9 milioi) eta aurrekontuz kanpoko zordunen zorren ehuneko 244ko gorakadarengatik (0,40 milioi).

4.11 UNIBERTSITATE-GIZARTE FUNDAZIOA

Unibertsitate-Gizarte Fundazioa Gobernu Batzarraren 1996ko abenduaren 20ko Erabaki bidez eratu zen, 24.000 euroko hasiera-kapitalarekin, elkarriketa sustatzeko eta NUPen eta nafar gizartearen arteko lankidetzaz bideratzeko.

2022an, NUPek, kreditu berezi baten bidez, 396.568 euroko ekarpena egin zion fundazioari, 2023an modua izan zezan balizko aurrekontu-desorekei aurre egiteko.

Enpresa pribatu batek egin zuen fundazioaren 2022ko urteko kontuei buruzko finantza-auditorretza, eta oniritzia iritzia eman zien.

2022an, fundazioak honako magnitude muntadun hauek izan zituen bere jardura ekonomiko-finantzarioan (aurreko ekitaldikoekin ere alderatu dira):

	(milakotan)	
	2021/12/31	2022/12/31
Funts berekiak	408	480
Pasibo korrontea	1.894	1.210
Aktibo ez korrontea	65	64
Diruzaintza	1.165	992
Jardueraren beraren ondoriozko diru-sarrerak	4.971	5.027
Unibertsitate-enkarguaren aplikaziotik heldu diren diru-sarrerak	568	646
Langile gastuak	2.009	1.896
Ekitaldiko emaitza	11	72
Batez besteko enplegatu-kopurua	40,37	41,31

Fundazioak bere alor desberdinetan izandako gastuen eta diru-sarreraren xehakapena honako hau da:

	Diru-sarrerak	Gastuak	IIL gastua NUP	Diru-sarrera aurreko emaitza enkargua	Enkarguaren diru-sarrera (barne hartzen du NUPeko IIL gastua)	Fundazioaren kontabilitate-emaitza
Prestakuntza	1.224.318	1.006.886	381.584	-164.152		
Praktikak	2.257.454	2.210.712	-	46.742		
Enplegua	299.357	279.039	-	20.318	645.978	72.313
Hizkuntzak	595.273	814.335	4.838	-223.900		
Zuzendaritza eta euskarria	9.857	262.530	-	-252.673		
Guztira	4.386.259	4.573.502	386.422	-573.665		

Unibertsitateko errektorearen abenduaren 22ko 2684/2021 Ebazpenaren bidez, fundazioari honako jardura hauek egiteko mandatua eman zitzaion 2022rako:

- Etengabeko prestakuntzako jardura: titulu berekiak, eskaintzako prestakuntza etengabea, eskaerako prestakuntza etengabea edo in Company prestakuntza, Esperientziaren Ikasgela eta beste prestakuntza-programa batzuk, NUPek mentore, ordezkari eta tutoreentzako prestakuntzaraketat jotzen dituenak.

- Praktika nazional zein nazioarteko programaren kudeaketa: gradu eta masterreko curriculum-praktikak, curriculumez kanpoko praktikak eta graduondoko praktikak, TalentUpna programakoak.

- Hizkuntzak: Hizkuntzen Goi-mailako Ikastegiaren kudeaketa, hizkuntza-ikastaro orokor nahiz bereziak antolatzea, azterketa ofizialen kudeaketa. Mailakatze-probak eta itzulpen-zerbitzuak.

- Loturagintza-plana: NUPi sostengu ematea plan honen eta A3U Programaren (NUPeko lagun eta ikasle ohiena) kudeaketan

- Enplegua eta Ekintzailtza Hobetzeko Plan Integrala.

- Lan-bitartekaritza eta Behatokia.

- Kirol-jarduerak gizartean sustatzea eta NUPeko kirol-instalazioak erabiltzea

Txosten honen III. eranskinean, arlo horietako bakoitzean egindako jardueren adierazle batzuk aipatzen ditugu.

I. ERANSKINA. ADIERAZLE EZ FINANTZARIOEN BILAKAERA

Hurrengo taulan erakusten dugu zein izan den izaera ez-finantzarioko adierazle-multzo batek 2019, 2020, 2021 eta 2022ko ekitaldietan (2018/19, 2019/20, 2020/2021 eta 2021/22 ikasturteetan) izandako bilakaera:

Informazio ez-finantzarioa	2019	2020	2021	2022
	2018-19 ikasturtea	2019-20 ikasturtea	2020-21 ikasturtea	2021-22 ikasturtea
Campusa	2	2	2	2
Enpleguak				
Langileen guztizko kopurua	1.460	1.500	1.569	1.653
AZLak, guztira	494	499	505	506
AZL funtzionarioak/AZLen guztizkoa ratioa	64	63	62	61
IILak, guztira	96	1.001	1.064	1.147
IIL funtzionarioak/IILen guztizkoa ratioa	34	33	33	32
IIL-DOBak, guztira	659	683	698	729
IIL-DOBak/AZLak ratioa	1,3	1,4	1,4	1,4
IIL doktoreen kopurua	682	714	736	767
IIL doktoreak/IILen guztizkoa ratioa	71	71	69	67
Langile elkartuak	398	415	474	538
IIL elkartuak/IILen guztizkoa ratioa	41	41	45	47
Langile ikertzaileak	247	245	293	284
Titulazioak eta ikasle-postuak				
Eskainitako graduko titulazio ofizialen kopurua	25	31	31	31
Graduko titulazioetan eskainitako ikasle-postuak	1.805	2.005	2.020	2.045
Unibertsitate masterren kopurua	26	26	28	27
Titulu berekien kopurua	33	46	49	53
Ikasleak				
Ikasleen guztizko kopurua	8.162	8.466	8.863	9.218
Ikasle kopurua (Gradua)	7.019	7.235	7.567	7.826
Ikasle kopurua (Masterra)	748	817	861	887
Ikasle kopurua (Doktoretza)	395	414	435	505
Ratioa: Gradu-ikasleak / IIL-DOBak	10,65	10,59	10,84	10,74
Ratioa: Gradu-ikasleak / AZLak	14,21	14,50	14,98	15,47
Nazioarteko Mugikortasunetik heldutako ikasleen kopurua	271	278	92	111
Nazioarteko Mugikortasuna dela-eta kanpora bidalitako ikasleen kopurua	387	411	229	419
Graduatutako ikasleen kopurua	Ez da apli- katzekoa	1.295	1.381	1.313
Master-ikasketak amaitu dituzten ikasleen kopurua	Ez da apli- katzekoa	429	464	462
Ikerketa				
Ikerketa-zentro eta -institutuak	8	8	8	8
Ikerketarako katedrak	10	10	13	18
Ikerketa taldeak	104	106	106	107
Ikerketa taldeetako langile ikertzaileak	1.104	1.113	1.200	1.269
Irakurritako tesiak	46	57	43	61
Datu baseetako argitalpen nagusiak	1.413	1.608	1.787	1.790
Egindako ikerketa-kontratuen kopurua (LOUren 83. art.).	190	167	230	226
Lehia-izaerako deialdi publikoetan emandako inbertsio-proiektuen kopurua	85	81	64	88
Emandako patenteen kopurua	2	1	4	2
Sortutako "spin off"en kopurua	1	1	0	4

Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoaren webgunea.

II. ERANSKINA. ABENDUAREN 31KO LANGILE EFEKTIBOEN BILAKAERA

Irakasle eta ikertzaile diren langileak (IIL)	2019	2020	2021	2022
Funtzionarioak	332	329	350	365
Unibertsitateko katedraduna	97	99	106	117
Unibertsitateko titularra	222	221	239	242
Unibertsitate eskolako katedraduna	3	2	-	-
Unibertsitate eskolako titularra	9	5	4	4
Beste batzuk	1	2	1	2
Kontratatua	634	672	714	782
Laguntzailea	-	-	1	5
Doktore laguntzailea	66	69	66	55
Kontratatutako doktorea	76	77	51	60
Behin-behineko kontratupeko doktorea	75	95	107	103
Irakasle elkartua	398	415	474	538
Ordezkoak	18	15	13	17
Bisitaria	1	1	2	4
PDI, guztira	966	1.001	1.064	1.147
Administrazioko eta zerbitzuetako langileak (AZL)				
Funtzionarioa	316	316	315	310
A maila	52	53	57	58
B maila	67	69	74	72
C maila	91	176	172	170
D maila	106	18	12	10
Kontratatua	178	183	190	196
A maila	32	34	32	30
B maila	29	29	39	42
C maila	31	94	92	98
D maila	71	11	12	11
Besterik (behin-behineko langileak)	15	15	15	15
PAS, guztira	494	499	505	506
Langile ikertzaileak (LI)				
Lehia bidezko deialdi publikoetako ikertzaileak	140	137	132	158
Unibertsitateko irakasleen prestakuntza (UIP)	8	5	5	5
Langile ikertzaileen prestakuntza (LIP)	17	18	22	21
Doktoretza aurreko beste ikertzaile batzuk	92	85	82	
Ramon y Cajal	1	4	3	
Juan de la Cierva	3	3	2	3
Doktoretza ondorengo beste ikertzaile batzuk	19	22	17	38
Ez dago jasota	-	-	1	-
Proiektuen, kontratuen eta ikerketa-taldeen kargurako ikerketa	100	101	159	124
Doktoretza aurreko beste ikertzaile batzuk	88	82	134	103
Doktoretza ondorengo beste ikertzaile batzuk	12	19	25	21
Ikerketari laguntzeko teknikariak	7	7	2	2
PEI, guztira	247	245	293	284
Langileak, guztira	1.707	1.745	1.862	1.937

Iturria: unibertsitate-langileen estatistika, NUPen Gardentasunaren Atarian eskainia Unibertsitate Informazioko Sistema.

III. ERANSKINA. UNIBERTSITATEA-GIZARTEA FUNDAZIOAREN JARDUEREI BURUZKO ADIERAZLEAK

Arloa	Jarduera	Kopurua
Praktikak	Praktika-kopurua	1.067
	Praktika-programetako parte-hartzaileak	2.032
	Lankidetzeta-hitzarmenak enpresa eta erakundeekin	2.494
	TalentUPNA Graduondoko programaren laneratze-maila	% 64
Izen-emateen kopurua	Irakaskuntza berekiak	2.898
	Diruz lagundutako etengabeko prestakuntza	56
	Irakaskuntza berekiak	11.465
	Diruz lagundutako etengabeko prestakuntza	75
Prestakuntza	Eskola-ordu kopurua	106
	Prestakuntza-ekintzen kop.	5
Hizkuntzak	Irakaskuntza berekiak	892
	Hizkuntzak	5.284
	Azterketa ofizialak	2.590
Enplegua	Irakastordu-kopurua	91
	Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren dirulaguntza duen lanbide-orientazioa	1.003
	Egindako ekintzen kopurua	249
	Enplegu kualifikatuko eskaintzen kopurua	2.300
	Lan-bitartekaritza	Izen emandako pertsonen kopurua

Iturria: Unibertsitate-Gizarte Fundazioaren urteko kontuen oroitidazkia.